



NOLA EGIN AURRERA?


BAKE ETA KONPONBIDE PROZESUAZ HAMABOST HERRITAR GOGOETA EGINEZ



TXIRRINDULARITZA ▶ Mireia Epelde, profesionaletan

Negua, Hötza, Elurra...

Alde Zakarreko Merkatariake Urte Osoan Zurekin



- * aña mari egaña jañtzi deñda
- * agirre aparideña
- * azkue jañtzi deñda
- * gemma kinkilideña
- * ifurralde ifurgintza
- * furuñdareña ginefakakak
- * gotain lurrindegia
- * jone eta maikar estetika zenfrrua
- * jostaldi kirrolak
- * lidia jañtzi deñda
- * martina isasti jañtzi deñda
- * natura belardeña
- * torrealday akolkularitza
- * urrestilla jañtziak





Artea

L ehengoan Soledadeko kapera ikustera joan nintzen. Aurkitu berri dituzten pintura zaharrek liluratu ninduten. Hura edertasuna!

Madrilera, Parisera, Vienara eta ez dakit norajoan ohi gara museoak ikustera. Eta etxean daukaguna ez dugu ezagutu ere egiten.

Bi pertsona mota omen daude. Etxekoa guztia ona eta kanpoko baztertu egiten dutenak, eta kanpoko beti hobea eta etxekoa baztertu dutenak. Nik batetik eta bestetik, bietatik, edan nahiko nuke, etxekotik hasita.

"Ez hobea delakotz, baizik geurea delakotz", Xalbador zenari jarraituz.

Zuri-beltzean dira parrokiak aurkitutako margoak, eta Miguel Angelen eskolako eskua omen daukate. Sixtina kaperan dagoen *Azken juizioa*-ren antzeko zerbait irudikatzen dute, hura egin eta denbora laburrera egindakoak. Niri soiltasuna, karezko horma garbietan margoek egiten duten kontrastea gustatu zitzaidan. Oliba monastegiko horma garbiak gogorazi zizkidan. Adornorik gabeko horma sen-

doak, soilak baina ederrak. Ez, behintzat, erre- taulak erreztatu behar hori, zerua urrearekin lo(r)tuko balitz bezala.

Naturan ere hori eskertzen dut gehien. Na- tura bera bakarrik bere edertasunean. Ez ditut atsegin oraindik urte gutxitxo dituzten ustez 'betiko' gurutze horiek. Zer esanik ez San In- zioeren Xoxoteko estatua hori. Berritzen aritu dira ez dakit zenbat langile. Alferrikako lana.

Norbaitek nahi izango balu, badaukat pika- txoi bat eskura...

uztarrria▶

UZTARRIAREN DATUAK ▶

- Argitaratzailea.** Uztarrria Azpeitiko Kultur Koordinakundea
- Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)
- Telefono eta fax zenbakia.** 943 15 03 58
- Posta elektronikoa.** uztarrria@topagunea.com
- Posta kutxa.** 227, Azpeitia
- Lege gordailua.** SS-860/2000
- Zenbakia.** 81.a (2007ko otsaila)
- Urtea.** IX.a (1999ko azaroan sortua)
- Maiztasuna.** Hilabetekaria

Web orria. www.uztarrria.com

- Diseinua.** EREGI EUSKARA KOGUMINTZAKO
- Publizitatea.** ▶ 699 64 66 01
▶ uztarrria@uztarrria.com
- Bazkidetza-Harpidetza.** 15 03 58
- Tirada.** 2.500 ale
- Inprimategia.** Lizarra Grafikak
- Azaleko muntaia.** Leire Larrañaga

Oharra. Uztarrriak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



[u-irritzia]

- 08 Inkesta.** Karnabalak gertu daude eta, ondorioz, herritarrak moztarokoak prestatzen hasi al diren galdezka ibili da Uztarrria.
- 11 Bat hirutara.** Hiru gazteek Uztarrriako tarteko azken artikulua idatzi dute. Adio, hainbeste eztabaida piztutako hirukoteari.

[u-mamia]

- 12 'Olatz' aldizkaria.** Orain dela 50 urte sortu zuten eta Azpeitiko informazioaren erreferentzia izan zen.
- 14 Klik.** Tere Ezeiza jostuna Elegante Eguneko prestaketetan buru-belarri.
- 24 Txirindularitza.** Mireia Epelde, profesioletan orain.



Nosotros amamo:
Valvedo los contos e los flores, porque me de la Virgen.
Su devoción los guarda entre nosotros e siempre en nuestro pueblo se le quiere o le da Dios.
El Señor quiso que esta revista parara impresa en vida bajo su mirada maternal misericordiosa.
(Cuántos recuerdos levanto esa namí casita... en nuestras sinas! Es el nombre los Modos.)



[u-jakiteko]

- 26 Izenak.** Gaur egun Unai, Ane... dira; badago aldea orain dela 50 urte jartzen ziren izenen eta oraingoan artean.

[u-euskara]

- 36 Azpeitia aurrena.** Azpeitiak lehen postua lortu du Kontseiluaren euskal udalen hizkuntza politikaren neurketan, baina dena ez dago egina.

UZTARRIA AZPEITIKO HERRI
ALDIZKARIAREN LAGUNTZAILEAK ▶
(erakunde publikoak)





Enbido ▶



Koldo Aldalur

Azpeitiko naparra

Behin saiatuko politikaren eremu lokaztura pasatzen eta txarrantzak barrabilak odoleztatu dizkidanez, itzul nadin, inoren esnetxarra mindu aurretik, esker txarreko politika utzita, gauza serioetara.

Azpeitia osoan gastu gutxien eta etekin gehien sortu duen lau metro kuadroan nengoen: kiroldegiko saunan.

Epelera, Nafarroako odola zainetan borborka duen azpeitiarra hurbildu zait (hori nahasketa totala da; nafar askok duen ausardia eta kemena, eta azpeitiar askok duen harrokeria puntua). Eta biok han, biluzik eta, ondorioz, berriketarako prest. Hasi da kontu kontari.

▶ **NAFARRA MOSKUN.** "Lehendabizi hegazkin bat hartu behar izan nuen Moskura eta han beste bat Pai-khov aldera. Behin Siberiako lurretan, helikopteroak eraman ninduen soldadu errusiarrek zeukaten kanpamendura. Zortzi-hamarren bat txabola erdi izoztutako ibai baten ondoan. Guztira, bi dozena gizagaixo inoiz ezer gertatu ez den puntu 'estrategikoa' zaintzen. Haiei, auskalo zer agindu ematen, bibote tentea zuen sasoiko kapitaina. Gainerakoan, elurra eta izotza, aparteko besterik ez.

Helikoptero gidariak, berak asmatutako ingelez, handik astebetara itzuliko zela esan ondoren, han nengoen ni, soldadu errusiarren artean egunak oparitzen zituen ordu guztietan ibaian arrantzarako prest. Gustura izokinen erreinuan. Astebeste inorekin haserretu gabe, ezer ulertzen ez zidate-lako eta ulertzen ez nielako. Denborapasa bakarra, une batetik bestera eroriko zela zirudien sauna. Bertako kirol nazionala.

▶ **BOTERE ERAKUSKETA.** Egun motzak eta gau luzeak pasatu dira arrantzaren bakean, eta iritsi da alde egin beharreko bezpera. Han nork agin-

tzen zuen garbi uztera hurbildu zait kapitain dotore hura, eskuetan pare bat botila vodka eta basoak zituela. Mahai triste hartan biok, jo tragoa eta jo tragoa. Azkenerako ez nekien mozkortuta edo, besterik gabe, itota hilko nintzen. Bera, harro hasieran, bigarren basoerdirako jokoa uzteko aitzakiatan hasiko nintzelakoan. Baina ni odolez nafarra naiz, eta begiradari, eta hurrengo tragoari, heltzeko prest nintzen. Zirrikotik soldaduak kapitain harroari-eta hitz egiten ez, baina gogotik edaten zuen atzeritarri begira.

Tximinia, mahaia, basoak eta gainerakoak bueltaka hastear zirela jaiki da Errusiako Armadako kapitain menderaezina eta keinuz adierazi dit atzetik jarraitzeko. Balantzaka, balantzaka, sartu gara dixosozko saunara eta erronkaren bigarren zatiari ekin diogu. Hura beroa! Hura egonezina! Infernarako entrenamendua ematen zuen. Isilik, elkarri begira, nork gehiago iraungo han barruan bizirik. Atea bertan baina berak irteteko keinurik ez, eta ni gustura nengoen plantak egiten, azazkalek hatzetan lehertu behar zutela iruditzen zitzaidan arren. Hamar minutu, ordu laurdena, izerdian vodka kiratsa... Hori da herioa!

▶ **HIRUGARREN PROBA.** Eta kapitaina, nola edo hala, lurrin artean mugitzen ari zela ikustean, sinistu ezinda. Berriro atzetik jarraitzeko esan zidan, inoiz baino harroago, hirugarren proba beteko ez nuelakoan. Saunatik irten eta biok larru hutsik korrika batean, Siberiako puntan, mozkortuta eta izerditan, erdi izoztutako ibaira salto egiteko prest. Kapitainak uste ez bazuen ere, ni barrura.

Uretatik irten nuenean, ulertuko ez zidala jakin arren, ba al dakizu zer esan nion harro zahar hari? 'Ez iezaiozu inoiz esan 'balorerik ez daukak' mozkortutako nafar bati!'

Hurrengo egunean helikopteroak kanpamendua utzi zuenean soldaduek irribarre txikiarekin agurtu gintuzten. Kapitainaren arrastorik ez..."

Nafarraren odol beroa eta azpeitiar askoren harrokeria puntua. Alferrik etorriko da armada gorria bere koro eta guzti, ez gaituzte mendean hartuko eta!

HILEKO ESALDIA ▶

Alferrik da, beste odol bat dute!

AZPEITIKO

6 harategi hauetan bakarrik

EUSKAL OKELA

CARNE DE VACUNO DEL PAIS VASCO

BAIMENDUTAKO HARATEGIA

EUSKO LABEL



EUSKAL OKELA



"Bertan jaio eta hazitako ganadua. KALITATEKO okela nahi baduzu, GUREAN aurkituko duzu!"

Beloki
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62
AZKOITIA
Jose Arizaba, 21 Tel.: 943 191392
AZPEITIA



bertako okela

HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEKOA 15 00 03
AZPEITIA



Harategi
Especializatua

Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015



Harategi eta Zerrilegia
Euskal Herriko Haragirik Onenak

Sari Inazio Kaleko 12an
Urrut. 943 81 14 98



HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TARRERIA

ETXEKO URDAIKIA

FORU HIRI BIDEA, 4
TFNOA: 81 15 94

AZPEITIA



KALITATEKO HARAGIA

BUSTINZURIKO ERREBALA, 8
TFONOA: 943 811671



Olatz Prat

Zifra hutsak?

Nork esango luke 22 urterekin inor ezertarako zaharregia denik? Ba dirudienez eta, azken urteotan ikusi dugunaren arabera, Azpeitiko danborradan kantinera irteteko zaharregiak gara 22 urteko neskok. Aurten atera dira batzuk, baina, guztioi eman digu begira; ez itsusi zeudelako, ez gaizki ulertu, ederrenak beraiek izanik ere bakarrak izan direlako. 15 urteko neskek gazteegiak dira soldaduen prostitutak irudikatzen.

Lehen paragrafo hori idatzi eta begirada bat eman diodanean, zenbakiak izan dira ikusi ditudan lehenengo gauza. Interneten saltseatzen hasi naiz. Azken notiziak hartu eta horietan agertzen diren zifreierreparatzen. Minutu batzuen ondoren konturatu naiz zein erraza den matematikak pertsonen aplikatzea, gizakia zenbaki huts bihurtzea. Baina atentzio gehien ematen didana zenbakien erlatibotasuna da, tokiaren, garaiaren edo egoeraren arabera hartzen duten zentzu erlatiboa.

▶ **INDARKERIA ETA HILDAKOAK.** “Masa gizar-tearen estatistikek gertaeren sakontasuna deusestatzen dute”. Horixe irakurri berri dut sareko blog batean.

Dorre Bikien atentatuan 3.000 pertsona hil ziren gutxi gorabehera. Horri ordainetan, Iraken izan diren biktima kopurua kontabilizatu ezin daitekeen puntu batera iritsi da, 50.000? 100.000? 600.000? Madrilgo atentatuetan 200; Iraken, egunean, 100 (dakizkigunak). Madrilgoak Estatu-ko historian kapitulu berri bati hasiera eman zion; zein gogoratzen da, aldiz, Iraken egun beltz hartan hil zirenez eta haietako bakoitzaren familiez?

▶ **ERAILDAKO EMAKUMEAK.** Estatuan, urteko 60 emakume hiltzen dira batez beste bikotekideen eskuetan. Horietatik %98k salaketa jarria zuten hil aurretik. 2006an 68 gizonen euren emazte eta bikotekidea akabatu zuten eta horietatik 17k bere buruaz beste egin zuten ondoren. Aitonari kontra egin beharko diot oraingoan; hark zioen “*el orden*

de los factores no altera el producto”. Baina ederki aldatuko litzateke kontua emaztea hil aurretik bera suizidatuko balitz.

Pfizer, munduko talde farmazeutiko handienak, 10.000 lagun –langilegoaren %10– kaleratuko dituela esan du, kostuak gutxitu eta botika generikoen kompetentziak eragindako galerei aurre egiteko. Neurri horrekin urtean aurreztutako 2.000 milioi dolar ikerketara bideratuko omen ditu. Ja! Eta gero zer egingo dute, ikerlariak kontratatu? Bai zera!

▶ **DIRU KONTUAK.** Zifrekin eta zenbakiekin fribolizatzeak bere arriskua dakar ordea. Gogoratzen Esperanza Aguirrek, Madrilgo erkidegoko presidenteak, hilaren bukaerara heltzen ez zela esan zuenean? Momentuan pentsatu nuen, “lotsarik ez!”; baina, zifren kontu honekin, zifren bila joan naiz.

Emakumeak urtean 100.742,91 euro irabazten ditu; hau da, 8.395,24 euro hilean (pezetatan 16.762.209 urtean, 1.396.850 hilean). Madrilen bizitzea garestia izango da, ados. Baina diru horrekin ordain daiteke 4 pertsonako 5 familien janaria eta alokairua (ez Moralejan, noski).

Gabon jaietan errepedeetan hildakoen %40k ez zeramaten segurtasun uhalik. Lehengo urtean motorrean hildakoen %40k ez zeramaten kaskorik. Kasualitatez, ukolondoa babesteko kaskoa besotik zintzilik zeramatenen kopuru bera da.

▶ **ZIFREN ERAGINA.** Okerrera ez da estatistikek esaten digutena. Okerrera da zifra horietako bakar batekin ere ez diogula albistegiak ikustean edo egunkariak irakurtzean jateari uzten. Zifrekin zerikusia duten gertaera asko anekdota moduan kontatzen ditugu, baina oso gutxitan gara horien garrantziaz eta tamainaz jakitun. Nik ez dakit kalkulatu zenbat diren 200 hildako. Ez dakit hori irudikatzen, mila aldiz irudiak ikusi badituz ere.

Irakurri dut, gaur egun bizi den pertsona bakoitzeko beste 30 bizi eta hil direla aurretik. Gaur egun 6.000 milioi biztanle baditu munduak; beraz, existitu diren gizakien kopurua 180.000 milioikoa da. Hori kontuan izanda, zer dira bada 200 hildako? Zer gara bada zenbaki hutsal eta ziztrin bat besterik?

HILEKO ESAERA ▶

Nola idatzi daiteke zenbakitan ‘anaia hil zait istripuan’?



PILDAIN
Inmobiliaria
www.pildain.com
Harzubia 6, behea
Tl. 943812167 - Fax: 943150774
e-mail: inmobiliaria@pildain.com



Otamendi
Bilvi Denda
Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49

LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net



JATETXEA

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81



AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

IRAKASLE TITULUDUNAK ETA ESPERIENZIADUNAK
CAMBRIDGE, HEQ, TOEFEL
HAURRENTZAT KLASA BEREZIAK EGUARDIAN
ESKOLAKO INGELESERAKO LAGUNTZA

ENPRESETARAKO INGELESA

HELDUENTZAT MAILA GUZTIAK
ERRELEBOETAKO LANGILEEI PREZIO BEREZIA

CENTERPOINT ACADEMY
Ingelesa ikasteko bide zuzena
Foru Ibilbidea, 7-1 ezk. Tel.: 943 81 65 03



domusa

Eman zure negozioaren berrir Azpeitiko Gidan!

azpeitiko
GID@
HERRIKO NEGOZIOEN GUNEA



Trauskil ▶ Jon Berdejo



Hau ▶



Aitor Zinkunegi

Herriak du hitza

Espainiako Estatu inperialistaren izaera faxista agerian gelditu da beste behin ere: independentziaren proiektu politikoa defenditzen duen gaztea "terrorista" da. Bitartean, *zipaio*, *madero* eta *pikoletoak* hortzetaraino armaturik gazteriaren atzetik dabilta egurrean; Burgostik Madrilerara epaiketako politikoa, gatazkaren izaera politikoa salatuz.

Hamar hilabetetan, Estatuaren eta bere lagun interesatu fideleren (J.J. Imaz, Balza eta konpainiaren) mekanismo errepresibo gogorrena ezagutzen ari gara: epaiketak, isunak, ilegalizazioak, karga polizialak, atxiloketak, kontrolak... eta, tartean, De Juana (animo, Iñaki!). Errezeta zaharrak garai berrientzat, eta aitzakiak, ez hitz egiteko aitzakiak, beste-rik ez. Barajas? Aurretik ere berdin, aitzakietan zebiltzan. Kale borroka? Irailetik aurrera gogortu zen, eta aurretik ere aitzakiak zeuden. Gogoratzten al duzu zer egoeratan eman zuen su-etena ETA erakundeak? Espainiako sarraski kartzeleetan eraildako bi gudari irurra ematen ari zen Ezker Abertzalea. Nor da hemen borondaterik ez duena? Zapaterok badaki konponbiderako giltza zein den: herriaren hitza eta erabakia onartzea inongo mugarik gabe. Nola egon daiteke horren kontra?

Ezker Abertzaleak azaldu zuen hasieratik hau borroka prozesua izango dela, eta horrela izango da, zoritxarrez; inork ez digu ezer oparituko. Prozesu honen berme bakarra herria da, herritarren parte-hartzeak eta lanak soilik ekarriko dute garaipena. Herritarrok irabazi behar ditugu euskal preso politikoen herriratzea eta ondorengo amnistia osoa, herritarrok irabazi behar ditugu hitza eta erabakia, eta herritarrok irabazi behar dugu desarme bilateral. Finean, herritarrok irabazi behar dugu Euskal Herria. Denok egin behar dugu geure ekarpena bide honetan, hau hasi besterik ez da egin. Hiri besarkada bero bat *Kafe*, eutsi gogor!

Galdetuz ▶

Karnabaletako mozorroa prestatzen hasi al zara?

ARANTXA ULAZIA ▶

azpeitiarra



"Neska txikiarena hasi naiz prestatzen; 'ratita presumida'-z jantziko dut.

Zaharrenak, berriz, Txikiteo Eleganterako trajea behar du. Hirugarrenarena, oraindik ere ikusteko dago!"

JASONE ETXABE ▶

azpeitiarra



"Oraindik ere danbor hotsak ditugu etxean. Egia esan, bi urteko alabatxoaren

mozorroa azkeneko uanean erabakiko dut".

OLATZ GOENAGA ▶

azpeitiarra



"Aurten erabaki dut etxeko bakoitzak arduratu beharko duela norbere mozorroaz. Gainera,

gure etxean mozorroa baino garrantzitsuagoa da Elegante Eguneko jantzia".

MAITE AIZPITARTE ▶

azpeitiarra



"Pentsatzen hasia naiz, baina oraindik ere ez dut ezer egin. Neu ez naiz

mozorrotzen, ez zaidalako gustatzen. Umeena, egindakoa erosten dut".

Apunteak ▶

ZALANTZA.

Hazparnek 0,21 eko nota ateratu du Kontseiluak udalen hizkuntza politikaz egin duen neurketan. Azpeitia eta Hazparne senidetuta daude duela 20 urte pasatxotik, baina Lapurdiko herrian euskarak daukan egoerak zer kezka sortarazten digun zalantzazkoa da.

GALDERA.

Maria San Gil PPren EAEko presidentea: "Haikako-eta 19 gazte oraindik ez dituzte atxilotu (Garikoitz Etxeberria Kafe...) eta orain ETAn sartuko dira". Ea, Maria: orain sartuko direla?; baina lehendik ez al ziren ba ETAkoak?...



Plazako kiosko plataforma.

ANE ARABURU

GORA.

Sansebastianetan Udalak plazako kioskoaren bueltan plazaforma jarri zuen. Ideia ona da, erabilia izan zelako danborradan eta zezenean. Gerora ere jartzeko modukoa (karnabaletan ere egongo da, ez dutelako kendu).

Ba al dakizu... ▶

EAK aurten udal eta foru hauteskundeetara EAEn bakarrik aurkeztea erabaki duelako eztabaida egon dela-eta, Azpeitian udal bozetara behin besterik ez dela aurkeztu EAJrekin koalizioan (2003an)?

Zer dio? ▶ Bixente Agirre (Premietxeberri baserriko ugazaba)

Lehorsteak agortuko ote gaitu?

Lehorrek ez digu oraindik txarrrik ekarri aurten. Urtarril bukaerarako elurrekin osatu gara eta orain artekoa, behintzat, ona izan da. Nahiz eta elurrak bideak itxi, pixka bat busti beharra zegoen.

Gu ganadutik bizi gara, behiak eta ardiak ditugu. Zona honetan, behintzat, ez da ur faltarik izan. Guretzat, aurreko hiru urteak askoz ere okerragoak izan dira. Udazkenean eta negu partean lehorra eginda hobeto da ganaduarentzat; bestela, bustitakoan lokatza eta zikin asko sortzen zaigu.

Elurteekin gertatzen zaiguna da ganaduari paso eman ezinda geratzen garela eta, gainera, ganadua ezin dugu kanpoan eduki. Eguraldi onarekin, berriz, egunez bada ere kanpoan izaten dugu ganadua. Belarrari dagokionean, aldiz, elurte ondorengo oso eskasa izaten da. Gainera, elurra egin ondoren, izotza izaten du nonbait belarrak eta, orduan, euria egi-

tea beharrezkoa da. Orain dela bi urte, elurra egin ondorengo egunetan hego-haizea ateratu zen eta, ondorioz, oso belar eskasa izan genuen. Elurte ostean euria egitea komeni da.

Klima aldatzen ari dela esaten duten arren, urte lehorragoak izan ditugu gurean eta atzera lehengora bueltatu gara. Alde handiko urteak izan dira! Egia dena da, lehorrea hasi orduko euri eske hasten dela jendea, eta euria ikusi orduko, berriz, eguzkia nahi!

Tenporatan ez dut fede handirik, nahiz eta agian zentzua izan, behin hasitako eguraldia –busti edo lehor– izaten baita gerora jarraituko duena. Baina aitortu beharra daukat: belarra sartu behar denean eta Pello Zabalarri eta komunikabideetako esatariei entzuten diet. Orduan bai, kaso egiten diegu; baina inoiz ez gehiegi!

Hitzaren balioa

Euskaldunaren hitza betidanik izan da balorea. Garai batean –bertakoentzat eta kanpokoentzat, hain zuzen–, euskaldunaren hitzak kontratu edo puskatu ezinako konpromiso baten balioa izan zuen.

Horrela erakutsi izan digute eta horrela jaso da hainbat idatzi literarioetan edo garai bateko epaiketetan erabilitako argudioetan.

Hitzak eta ekintzak elkarrekin joan behar dutela sinesgarritasuna izateko ere ez da gaur goizeko adierazpena, batak bestea baieztatzen duelako.

"Hitzak aireak eramaten ditu". Gaur egun sarritan entzuten den zerbait dugu esaldi horixe, kolektibo edo komunitate bateko partaideak izan ordez gero eta indibidualismo handiago dugun neurrian, elkarren arteko mesfidantza areagotu egiten zaigula adieraziz.

Hala ere, ditugun arazo ukaezinak gainditzeko elkarren arteko konfidantza minimoa ezinbestekoa dugu, batak eta besteak emandako hitza bete beharrezkoa dugu. Nola, bestela, elkarriketa mantendu?

Ez gaituzen 'hitza'-k zeresan nahi duen eztabaidan sartu, denok ulertzen baitugu zer esan nahi duten bere kontestuan erabili eta entzuten dugunean.

Bazter guztietan entzungo den aldarrikapen bat, garrasi indartsu eta garbi bat egin nahi dut:


Bakea eta elkarriketaren alde!
Euskaldunaren hitza!

◀ Eta beste



Maria Jesus Aranburu

Azpeitia hiri zintzo eta leiala ▶ Andoni Salegi



Bat hirutara ▶

▶ Mikel Aizbitarte, Xabier Aranburu eta Haizkurgi Uzin gazteek adio esango diote Uztarriako tarte honi. 2005eko ekainaz geroztik aritu dira gurean, zirikatzen batzuetan, adarra jotzen besteetan eta eztabaida pizten gehienetan.



Xabier Aranburu Mikel Aizbitarte Haizkurgi Uzin

Adiorik ez, gero arte

Xabier. Aizak Mikel, jakin al daiteke noizko egin duan abokatuarekin hitzordua?

Mikel. Asteazkenean, arratsaldeko seietan gelditu gaituk kontratua gainbegiratzeko. Badakizue gure etorkizuna jokoan dagoela; beraz, itxura apainarakin eta garaiz azaldu beharko diagu bere bulegoan.

Xabier. Abokatua, San Sebastian bezperan balantzaka ikusi genuen tipoa duk, ezta?

Haizkurgi. Txori aurpegia zuen tipo zelebrea hura?

Mikel. Horixe bakarrik falta genian, beletzar baten eskuetan egotea gure etorkizuna. Gure abokatua, tipo horren ondoan zagoan biboteduna duk. Ez zaitetze arduratu, oso erreferentzi onak ditik eta ziur nagok izugarritzko pagotxa lortuko dugula bere aholkuak jarraituz.

Xabier. *El Diario Vasco*-koekin noiz sinatu behar dugu kontratua? Andoniren komiki azidoen ondoan gure argazkia azaltzea izugarritzko ohorea izan duk niretzat, baina ez didazue ukatuko zirrarak ez duenik sortzen Azpeitian gehien saltzen den egunkari euskaltzale eta abertzale bateko editorialaren aldamenean gure idatzi xumea argitaratzeko zorian egoteak.

Haizkurgi. Orain garrantzi-

tsuena kontratu on bat sinatzea duk. Ezin diagu kikildu, beraz, karamelo goxoa ahoan jarri dugutenean. Uztarriako gure hileroko agerpenekin, herritarren babesa eta gorazarrea jaso diagu; aukera berri honekin gailurrera iritsiko gaituk.

Mikel. Nahiz eta gure intenzioa ez den inoiz inor mintzea izan, herriko errealitate gordina plazaratzearena baizik, ez ahaztu gure zenbait idatzik jendeari haserrea ere sortu diola.

Haizkurgi. Ondotxo dakik herriko gehien artean sortu dugun mirespena ez dela nolana nahikoa izan. Urrutira joan gabe, sansebastianetan, margoen industrian erregea den Xabier Margoak-eko nagusia etorri zitzaidan negar malkotan blai, Uztarriako gure lana ez uzteko erregutuz. Ez zakiat nola estaliko duten guk utzitako zuloa!

Mikel. Hala eta guztiz ere, beti egongo gaituk Uztarriarekin zorretan, *El Diario Vasco*-rako gure jauzia ahalbideratu duelako. Vocento talde 'eraginkorreko' partaide den egunkari horretan ariko gaituk aurrerantzean, egia eta adierazpen askatasuna lau haizeetara za-

baltzen Euskal Autonomia Erkidego osoan zehar.

Xabier. Oso urduri eta sentibera nagok azken egunotan, *El Diario Vasco*-ko zutabegile berriak bihurtuko garen honekin. Nahiz eta lanean hasteko egun batzuk falta diren, zergatik ez dugu *El Diario Vasco*-k Donostian duen egoitzatik bueltatxo bat ematen, instalazio berriak ikusteko eta, bide batez, gure lankide berriak ezagutzeko?

Mikel. Guk lana etxetik egingo diagu eta ez gaituk inondik inora *El Diario Vasco*-ko egoitzatik pasatuko. Donostiako egoitza bisitatzeko hire grina horrek, aldamenean dagoen *night cluba* probatzeko aitzakia ez ote den beldur nauk. Entzuna diat kalitate oneko neskak

egoten direla bertan, nahiz eta garesti samar aukeran. *Pitti, Tronpetas* eta Ollagorra elkarreko beste kideei galdetzen badiek, ederki emango ditek hango berri, bezero fidelak izaki.

Haizkurgi. Egia esan, ez hukek itxura izango orain Uztarria umezurtz utzi eta kolaboratzaile guztiek ihes egitea, baina baduk gutaz aparte beste bat *El Diario Vasco*-n idazteko adina maila duena.

Mikel. Zer esan nahi duk horrekin?

Haizkurgi. *El Diario Vasco*-k bertsolaritza eta 'moda' uztartzen dituen demaseko atal bat jarri nahi dik abian eta ezaugarri horiek betetzen dituen norbaitetorritzadak gogora: axolagabekeri handiz, De Juana presoaren egoera larria eta bigabebia aintzat hartu gabe egin zituen komentarioen arduraduna.

Mikel. Herriko errealitatea islatzen duten fikziozko egoerak maisuki uztartzean egon duk gure arrakastaren gakoa. Baduk jendea oraindik guk idatzitako guztia egia den amua irentsi duenik ere.

Xabier. Azkenean, gure idatzietan agertutako kontu pilaren artean egia dena eta egoera erreala islatzen duen gauza bakarra, gure agurra duk.

Haizkurgi, Mikel eta Xabier. Gure agurra txikieria bat duk Kaferekin gertatu dena ikusi eta gero. Gezur handi baten ondoren, egoera erreal bezain gordin baten aurrean aurkitzea egokitu zaiok: euskal gazteriarren aurkako gupidagabeko jazarpen baten biktima, Herriaren alde lan egiteagatik espetxe zigorra jaso duen azpeitiarra. Gure agurreko azken hitzak harentzat izan bitez: eutsi gogor moteil, laster ikusiko diagu elkar!





aitzindari PAPERREAN

Azpeitiko danborrada bezala, bada garai hartan herrian sortu zuten beste zerbait: 'Olatz' aldizkaria. Bost urtean egon zen

► Testuak: Enekoitz Esnaola ► Argazkiak: Uztarría ► 'Olatz' aldizkariaren orriak: Imanol Eliasek utzita

Herriko danborrada noiz sortu zen jakiteko, datua *Olatz* aldizkaritik atera genuen”, dio Imanol Elias historia-gileak. “Udal artxiboetan jartzen zuten 1957an desfile bat egon zela, baina ez zuten aipatzen danborrada zenik hura. *Olatz*-en bai, eta horrelaxe egiaztatu genuen”.

1956ko abenduan sortu zuten *Olatz* aldizkaria Azpeitiko Parrokian zebiltzatenean, Accion Catolicaren bidez. “Ikusten da, beraz, aldizkari hura ere elizaren babesean sortu zela, orduan beste gauza batzuk bezala”, esaten du Imanol Eliasek.

Berak ia hasiera-hasieratik idatzi zuen bertan: bere lehen artikulua 6. zenbakian argitaratu zuten –1957ko ekainekoan, *Zer degu O.A.R.G.U.I.?*, *Gaiztoa* ezizena-ekin— eta bukaerara arte segitu

zuen idazten. “Zenbaki denak gordetzen nituen, eta daukadan azkena 1961eko maiatzekoa dut, 51.a”. Formato txikiko azkena, hain zuzen. “Orduan igande goiz batez bilerara deitu gintuzten. Herriko señorito batzuk-eta ziren aldizkariaren arduradun eta haiek zioten formato berria behar zuela *Olatz*-ek, egunkariaren tamainakoa. 1961eko ekaina-uztaila zen. Atera zen formato berrian baina, nik uste dudanez, bakarra. Izan ere, gaizki ibili ziren osatzeko eta hortxe geratu zen. Nik formato berriko bigarren zenbakirako ere egin nuen artikulua, baina beste inork ez, eta garbi zegoen ezinezkoa zela segitzea”.

Olatz-ek Azpeitiko informazioan urteetako zulo handia estali zuten. Aurretik, 1923tik, *Urola* aldizkaria egon zen –Azpeitiaz in-

formatzen zuen, batez ere—. Gutxi iraun zuten. Eta gero, 1931n egon zen beste aldizkari bat: *Azpeitia. Sus costumbres y sus fiestas*. Aurrena, 1931ko uztailean atera zuten. Apenas iraun zuten Ondorengo *Olatz* izan zen, herrikoa, 1956tik. Erreferentzia izan zen. Herri informazioan, aitzindari.

Mantxeta Ignacio Agirrek egin zuten, Erdertinekoak, baina ez da gogoratzen zeinek agindu zion egitea. “Hala ere, seguru Don Jose Mariak [Eguren] izan zuela ikustekorik enkargua ematean”.

Agirrek “gustuko” zuen marrazkiak-eta egitea, eta atsegin handiz egin zuten mantxeta. “Letrak egiteko ere jende asko etortzen zitzaidan. Erraztasuna neukan, egia esan. Gustura geratu nintzen *Olatz*-erako egin nuen mantxetarekin, polita geratu zen”.

“Herrian danborrada noiz sortu zen jakiteko, datua ‘Olatz’ aldizkaritik atera genuen”

IMANOL ELIAS ►

‘Olatz’ aldizkariaren artikulua egile



“Gustura geratu nintzen ‘Olatz’-en azalerako egin nuen mantxetarekin, polita geratu zen”

IGNACIO AGIRRE ►

‘Olatz’-en mantxetaren egile



Mantxetak Azpeitiko Parrokiko dorrea zeukan, herriko armarría eta Olazko ermita. “Kolorea ere sartu genion eta, garai hartarako, modernoa geratu zen”.

‘Olatz’ aldizkariaren ezaugarri batzuk

Orrialdeak. Zortzi.

Maiztasuna. Hilerokoa.

Kazetaritza generoak.

Oso anitza zen:

albisteak, elkarrizketak,

kronikak, iritziak,

gutunak, laburrak,

hemerrotekak, egitarauak,

datuak, marrazkiak,

argazkiak, txistekak,

agenda, bertsoak,

intelektualen zitak...

Sinadurak. Anonimoak

nagusi. Zuzendaria,

Dr. Cotorra, Gaiztoa,

Ikasle, I. Aguirre, Enrique

Zurutza, Aitona, Maite,

Gazte-zar, Iturri Goxo,

Eneko, Jose Mari, Pepito

Elzaurdi, Lore Txorta,

Aitzbeltz, Aritz, Ignacio

Orbegozo, Julian

Bereziartua...

Gaiak. Azpeitikoak

eta orokorrak

(mundukoak...), erlijioa,

futbola, mendia, pilota,

zina, efemerideak,

Indiatik eta Afrikatik

gutunak, historia, festak,

Udala, liburugintza,

azpeitiartasuna,

soziedadeak, ikasketak,

feminismoa, ezkontzak,

heriotzak, osasuna,

langabezia...

Hizkuntza. Gaztelera,

batik bat. Euskaraz %15

inguru; aldizkariko zortzi

orrialdeetatik bat.

Datzitakoak

Aldizkari estimatua zen. Hala zioen 1957ko ale batean sinadurarik gabeko iritzi batek: "Emen degu berriro Olatz. Etxe geienetan badu oraintxe sarrera. Nai ta ez sartu bear. Azpeitiar jator guztiari atsegiñ bai zaido bere erria nolakoa zan jakitea. Nori ez digu azukre egiten biotzean, gure amazanaren erretrato bat ikustek?"

► **KANPOAN ZEUDENEI.** Atzerrian zeuden azpeitiarrei ere iristen zitzaien. Hauxe idatzi zuen Antonio, S.J. delako batek 1958an maiatzean, 17. zenbakian (Uztarriak itzulita): "Indiatik karta. Atsegin handiz hartu nuen Olatz aldizkariaren zenbakia. Hegazkin iritsi zen egun bakar batzuetan. Parrokiaren aldizkari honek ez du herrian bakarrik on egingo; herritik kanpo ere egingo du on, hain urrun dagoen Indian bezala. Gure herrian eguneroko bizimodu gertatzen diren gauzak interes handiz segitzen ditugu". Imanol Elias bera 1958an soldadutzara Marokora joan zenean, Andoni Albizuri *Katxo*-k bidaltzen zizkion *Olatz*-eko orrialdeak.

Aldizkariko arduradunak asko saiatzen ziren zabalkunde handia lortzen, lehen urteurrenoko oharrean ikusten den bezala: "Olatz, gaur, gauza txikia da. Badakigu. Hain zuzen, orain bete du urtebete. Zorionak! Aldizkariak hazi egin nahi du naturalki. Harpidetza berriak lortzea da une hauetan daukagun arazoa. Horiekin, tirada handituko genuke, aldizkaria hobetuz eta salneurria aldatu gabe, orrialde gehiagokoa egin".

Bai, dirua eskatzen zuten aldizkaria jasotzeko. 1958ko azaroko aldizkariko oharra (22. zenbakioa), herritik kanpo bizi zirenei: urteko bigarren sei-hilabeteakoa 14,25 pezeta kostatzen zela.

Eta zentsura? Frankismoaren garaiak ziren. "Nik, behintzat, ez nuen arazorik izan", dio Eliasek. 1958ko urritik aurrera (*Olatz*-en 21. zenbakia), azalean ohar bat jarri zuten, mantxetaren azpian: *Con censura eclesiastica*.

Irakurzaletasunaz. Ikasle-k, 1957an (Uztarriak itzulita): "Begiratzu hutsarekin nabarmentzen den egia da [Azpeitien]: irakurtzeko afiziorik eza. Institutu Laborala bezalako kultur gune garrantzitsua dugunez eta, *Olatz* bezalako aldizkari sinpatikoa argitaratzean, badirudi hauxe dela liburutegia sortzeko eraginetan egiteko unerik egokiena".

Formazioaz. Maitek, 1957an (itzulita): "Ba al du azpeitiar gazteak nahikoa formazioa? Askotan euren solasaldiak garrantzirik gabekoak eta zakarrak dira, gure emetasunarekin bat ez datozen aipamenekin".

Azpeitiartasunaz. Sinadurarik gabekoa, 1957an: "Guk azpeitiarrok beñere ez degu ukatzen gure jatorri bikaña. Azpeitiarrak gerala esatiak bakarrik ere, biotza pozez alaitzua egolditzen zaigu ta gure erriko gora berak nun eta obeto jakin naian ibiltzen gera. Hernani'ko sagardotegi baten zan. Isketan aguro antz eman zidan azpeitiarra nintzana ta sagardotegi artan bere gazte demboran gertatua, esan zidan, Azpeitiarra, upela-ondo zalea izandu zan nunbait, ari emen zan, beste azkotan bezela, berriketa baten, eta alako baten, batek esan dio. Ao isilik, sopo ori. Aizak, kontuz izan"



De nuevo Azpeitia, será escenario del Día de la Juventud de Guipúzcoa

Responde también en la revista de los estudiantes... Azpeitia será escenario del Día de la Juventud de Guipúzcoa...
 La juventud de Guipúzcoa...
 El día de la juventud de Guipúzcoa...
 La juventud de Guipúzcoa...
 El día de la juventud de Guipúzcoa...



ZER DEGU O. A. R. GUI?
 Nola bizi nahi...
 Zer degu o. a. r. gui?
 Zer degu o. a. r. gui?
 Zer degu o. a. r. gui?

Lehiaketa
 1961eko apiriletik (39. zenbakitik) atal berri bati ekin zioten *Olatz*-en: *Esango al zenidake...*
 Hilero hiru galdera jarriko zituzten. Sariak (itzulita): "Gustatuko litzaziguke sari gisa Mercedes deskapotelea jartzea, azken modeloa, baina, jaunak, ez dugu zertan eta, egia esan, koñak ederra edatea ere ez da txarra. Hala, sariak hauek izango dira: 1. Koñak frantziararren botila bat. 2. Aldizkarian urtebeteko harpidetza. 3. Aldizkarian urtebeteko harpidetza". Erantzunak uzteko tokiak: "Rezabal *Pocholo*-k egunkariak saltzen dituen kioskoa eta Victor eta Lagun Onak tabernak".

Goian ezkerrean, Olatz-en 4. zenbakiaren azala (1957ko apirila). Eta eskubian goian, orri bat; horren behean, Imanol Eliasen lehen artikulua Olatz-en (1957ko ekaina).
 zak sapuekin, erantzun omen zion bizkor, zergatik sapuak ez ditek sakelak eta elbiak bezela egiten, jo eta erori, jo ta arrotu baizik. An, sagardotegi artan zeuden guztiak algara ederra egin omen zuten azpeitiar aren ateraldiakin".
Edanaz. Sinadurarik gabe, 1958an: "'Encuesta' bat egin degu, ia egun mutilen erantzunak eta iritziak artuaz. Edan bai, oso azko edaten da; batez ere igande goizeko eta illunabarreko 'chiquiteo' ori, bildurgarria da. Bañan, zergatik hainbeste edan? Ez dakigulako bestela jostatzen, zurrutian baizik.

Batzuke erantzuten dute, neskatzangana joateko pixtu egin beari zuten dutela"
Frontoi Txikiz. Ikaslek, 1959an (itzulita). "Dagoeneko ez da azpeitiarona Frontoi Txikira gogoz joaten. Dagoeneko ez dira hiru txanda tradizionalak egiten. Zerk du errua? Akaso, kafea, kopa eta puruak, zinamak, futbolak edo lanak?".
Pasibitateaz. Ignacio Orbegozok, 1961 ean (itzulita): "*Olatz*-ek esan du: 'Batzarra suspenditu egin da, eta ondo egin dute. Azpeitiarrok gehien estimatzen dugun batzarra bazkaria da'. Zer egin dut nik Azpeitiagatik? Ezer ez". ◀

Esaldi gehiago www.uztarria.com-en

elegantziaren

PUNTUAK

Elegante Eguneko trajeek lan handia dute atzetik: aukeratu, ohiala erosi... Uztarriak Tere Ezeiza jostunarekin jantziak nola egiten diren ikusi du

► Testuak eta argazkiak: Ihintza Agirretxe



▲ PUNTUKA, PUNTUKA.

Gabonetan hasi eta karnabak bitartean orratza eta haria ez dira falta izaten Tere Ezeizaren etxean. Urtero emakumezkoen bospasei traje egiten ditu; ez du lan gutxi izaten.



JOSI ETA JOSI.

14 urte zituenetik ari da josten Tere Ezeiza.



MODELO BILA.

Tarteka liburuaren laguntza behar da trajea diseinatzeko.



PATROIAK.

Patroiak tela gainean orratzekin kontuz-kontuz lotzen ditu.



TELA MOZKETA.

Ondoren, trajearen zatiak guraize handiekin mozten ditu.



PUZZLEA.

Trajearen zatiak moztutakoan, puzzlea osatu behar da.



AZKENIK...

Maniki batean jarri eta soinekoa gainbegiratu egiten du. ◀



KULTUR AGENDA ▶ Hilabetea.

Otsaila.
Banaketa. Asteburu honetan.
Non. Herriko tabernetan eta toki publikoetan.
Tirada. Mila ale.

Argitaratzailea. Uztarría Kultur Koordinakundea.

Udalari eskaera

Uztarría webeko *Azpeitia* atala hobetzen dihardu azkeneko bi urteetan eta, gehiago hobetzeko, horretarako Udalari urtebeteko laguntza zehatza eskatu dio.

uztarria.com-en laster AZPEITIKO GIDA KOMERTZIALA

Uztarría Kultur Koordinakundea bere komunikazio proiektuan, besteak beste, webgunea du: www.uztarria.com. Bertan egunero mila bisitatik gora izaten dira, eta herritar askorentzat erreferente da. Uztarría laster beste pauso bat emango du webean, *Azpeitiko gida* atal komertziala sortuta. Datu base ona izango da.

Helburua. Gidaren bidez azpeitiar denentzat (beste) zerbitzu bat ematea, uneoro ikusgai egongo den direktorioaren bidez: herriko dendak, tabernak, arrandegiak... agertuko dira.

Ezaugarriak. *Azpeitiko gida* herriko komertzio eta negozioen bilgunea izango da, eta honako ezaugarriak izango ditu:

- ▶ 1. Guneen zerrenda guztia. Jardueraren arabera zerrendatuta egongo dira.
- ▶ 2. Jarduera bakoitzean klikatuz gero, esparru ho-

SARRERA AGENDA ALBISTEAK ARGAZKIAK AZPEITIA BIDEAK BLOGAK EUSKARA ALDIZKARIA PA Hemen zaudete: Azpeitiko atalaz ▶ Azpeitiko Gida Komertziala

azpeitiko Azpeitiko Gida Komertziala

Azpeitiko gida komertziala duzue honako hau. Herriko negozioerak **Jarduerak**

- **GIDA**
 - Zer da hau?
 - Harremanetarako
- **ORRI HAU...**
 - Inprimatzeko prestatu
 - Uztarría-ri komentatu

- Abokatuak (9)
- Aholkularitzak (10)
- Akademiak (9)
- Altzariak eta sukaldeak (15)
- Argokiak (1)
- Argazkiak (5)
- Arkitektura eta ingeneria (7)
- Arrandegiak (5)
- Arropa dendak (32)
- Asegueri etxeak (8)
- Autotoki kutzak eta banketeak (14)
- Autotoki eta auto konponketak (28)
- Harategi eta urdaitegiak (1)
- Igeltseroak (12)
- Ikastetxeak (7)
- Ile apaindegiak eta estetik. (1)
- Industri hornidurak (1)
- Informatika (4)
- Inmobiliariak (5)
- Iturintza (8)
- Janari dendak (13)
- Jostailu dendak (1)
- Kirol dendak (9)
- Lehoi eta atekak (6)

Goian eta behean, *Azpeitiko gida* izango denaren bi adibide.



gehiago eman ahal dituzte, hiru erara:

- ▶ 1. Informazio orria.
 - o Negozioaren deskribapena.
 - o Logotipoa.
 - o Pare bat argazki.
 - o Mapa bidez kokapena.
- ▶ 2. Bloga.
 - o Negozioari buruzko albisteak sartuko dira (azkene nobedadeak eman daitezke, edo bestelako albisteak).
 - o Albiste horri dagozkion irudiak ere sartuko dira.
 - o Batez beste, urtean 3-4 albiste sartuko dira.
 - o Irakurleak albiste horri

erantzuteko aukera izango du; beraz, dinamika emango dio blogari.

o Uztarríaren webeko azalean (*Azpeitiko gida* atalean), bere bloga eguneratzen duen negozioaren logotipoa eta blogerako lotura agertuko dira, erabiltzaileak aldaketen berri dezan eta blog orrietara errazago sar dadin.

o Blogak Eregi Euskara eta Komunikazio Zerbitzuak enpresak kudeatuko ditu. Eregi arduratuko da albisteak jaso, idatzi eta blogetan jartzeaz.

▶ 3. Webgunea. o Negozioaren webaren sorrera.

o Web propioa dutenei lotura zuzena egingo zaie.

Abntailak. Aukera berri horiekin Azpeitiko komertzio eta beste negozioek abntailak izango dituzte:

- ▶ 1. Uztarríako webeko azalean agertzea: logotipoak txandakatuz ikusiko dira *Azpeitiko gida*-ren atalean.
- ▶ 2. Uztarríako weba bisitatzen dutenengana iristeko aukera argia.
- ▶ 3. Bilaketa orokorretan ondo kokatzea (Google-n, esate batera). ◀



1.052

bazkide gara dagoeneko Uztarrían; eskerrik asko denei

egin zaitez bazkide UZTARRIAN

Zure datuak Uztarríari helarazteko aukerak:

- ▶ Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia, 20730) ▶ 227 posta kutxa, Azpeitia
- ▶ uztarria@topagunea.com ▶ Telefona (eta faxa): **943 15 03 58** ▶ www.uztarria.com

IZEN-ABIZENAK ▶

NAN edo EHNA ▶

HELBIDEA ▶

HERRIA ▶

TELEFONOA ▶

E-MAILA ▶

KONTUKO 20 ZENBAKI (harpidedunek ez*) ▶

BAZKIDEAK ▶

Urtean. 27 euro.

Jasoko dituzu.

- ▶ Uztarría herri aldizkaria.
- ▶ Biografiak: *Joxe Takolo* eta *Imanol Elias*.
- ▶ *Euskarazko prentsa eta Azpeitia* liburua.
- ▶ *Loiolarik ez balitz* liburua.
- ▶ *Otsobeltz* liburua.
- ▶ *Urrestillako musika taldeak* liburua.
- ▶ *Azpeitiarrak Espainiako Gerran* liburua.
- ▶ Erdi prezioan: *Mendi gida* eta *Azpeitiko efemerideak*.

HARPIDEDUNAK ▶

Ez du diruz laguntzen.

Jasoko duzu.

- ▶ Uztarría herri aldizkaria.

Bideoak ▶ www.uztarria.com/bideoak

Danborrada ikusgai uztarria.com-en. Azpeitiko danborrada Interneten ere egon da ikusgai: www.uztarria.com/bideoak-en. Hiru bideo sartu zituen (behekoak). Sartu atalera eta horiek ikus daitezke.

Atal berezia ere bai. Horiez gain, atal berria sortu zuen Uztarriak: www.uztarria.com/azpeitia/festak/sebastianak helbidean, hain zuzen. Historia, doinuak, argazkiak... daude bertan.



Helduen danborradako entsegua.



Izarraitz pilotalekuko jaialdia.



San Sebastian bezpera.

Inkesta ▶

Zer balorazio egiten duzu aurtengo sansebastianez?

%42

Oso ona

%52

Ona

%3

Erdipurdikoa

%2

Txarra

%1

Oso txarra

Orain dagoen galdera. Behin ere joan al zara Txikiteo Eleganteko jantzia erostera?



Argazki blogak ▶ www.uztarria.com/blogak/argazkiak

Arbeit macht frei



Oraindik bero hura itsatsirik daramat. Lurralde ezberdin batean jaioa, okerreko arraza baten jabe antza. Kolpatua, giza-lotsaren usaina.

Bizirik, heriotzean. Egurrezko kaiolak, aurpegiak oroimenean, errautsak arnas. (...)

▶ Iban Etxezabal eta Eneko Garmendia

Blogak ▶

www.uztarria.com/blogak/pertsonak

Eskerrik asko, Amaia



Herri guztietan izaten da (eta izan behar du) herriari nortasuna emango dion norbait,

herriaren izaera islatuko duen norbait. Eta Azpeitian ere bada-go. Bat baino gehiago izango dira beharbada, baina nik bat gaineratuko nuke beste guztien gainetik. Amaia Garmendia da bera. Eliz kaleko Amaia. Eliz kaleko arima, saltsa, bizipoza.

Zenbat neska-mutil pasatu dira bere eskuetatik urteetan eman dituen gitarra ikastaroetan? Berdinak izango al lirateke Eliz kaleko festak berak jartzen dituen ilusio eta gogorik gabe? Berdinak sansebastianak hasierako urte haietan umeen danborrada antolatzen hartu zituen lan eskerga haiek gabe? Berdinak saninazioak zezenketaren aurka antolatzen dituen manifestazio herrikoirik gabe? Ez. Ez lirateke berdinak izango, Amaiak plater on batek behar-beharrezko dituen gatz eta piperra islatzen dituelako. Fundamentuzko festa baten ardatza delako.

Horrelako jendea mimo handiz zaindu behar du herriak. Galtzen ari den espezie batekoak direlako. Etekin ekonomikorik atera gabe lan egiteko prest dagoen espezie sinple batekoak direlako. Une batetik bestera, arrunta den festa bat berezi bihurtzen den jendea delako.

Zenbat gauza sustatu, bultzatu ditu Amaiak herriaren alde? Eta alderantziz? Itzuli al dio Azpeitiak Amaiari honek merezi duen guztia? Agian bai, agian ez. Amaiari berari galdetu beharko zaio, ea zer esaten digun. Dena den, eskerrik asko hemendik, Amaia.

▶ Iñigo Iburguren

JOAN...



Gurean ▶

ITZIAR ARCONADA

▶ Uztaro Kooperatiba

“Sektore ezberdineko herria da”

Uztaro Kooperatibako ki-deek hitzaldia eman zuten Gaztetxean urtarrilaren 11n. Uztarriak Itziar Arconadarekin barazki ekologikoez eta herriaz hitz egin zuten.

Inoiz izan al zara Azpeitian gai honetaz hitz egiteko?

Ez, lehen aldia da.

Zer irudituz zaizu herria?

Orokorrean, nik ikusten dut herri bezala oso sektore ezberdinak daudela. Alde bate-tik, sektore bat nahiko probi-nitzianoa dena eta, bestetik, beste bat apalagoa dena.

Barazki ekologikoe-kiko kontzientziatuta al gaude?

Orokorrean, gizarte mailan jendea gero eta gehiago ari da mugitzen eta Azpeitian ere jendea gaur egun nahiko kontzientziatuta dago.

Bazkiderik lortu al duzue?

Ez zen jende asko joan hitzaldira, baina joan zen jendeak interesa zuen. Seguruenik, baserriarekin nolabaiteko lotura zutelako. ◀



Aterpezain berriak Xoxoten

Urtarrilaren 13az geroztik arduradun berriak ditu Xoxote-ko aterpeak. Hemendik aurrera, Bixen Madotz (Iruñea) eta Olatz Telletxea (Donostia) izango dira aterpeko kontuak emango dituzten pertsonak. Euxebio Beloki eta Beni Odriozolak abenduan utzi zuten, hiru urtez bertako arduradun izan ondoren. Argazkian, aterpezain berriak.



50 urtean danborra jotzen

Danborradaren 50. urteurrena ospatzeko, karroza berezia kaleratu zuten urtarrilaren 20an. Urte hauetan zehar izandako danborrada guztiak ekarri zituen gogora Saioa Imazek diseinatutako karrozak.

Antxieta zabalik adimen urrituentzat

Antxieta eraberritu egin dute adimen urritasuna duten eskualdeko pertsonentzako egoitza zabaltzeko. Gureak eta Atzegik kudeatuko dituzte bertako eguneko zentroa eta etxe tutelatuak.



Etxeberria atxilotu nahi

Espainiako Auzitegi Gorenak urtarrilaren 19an erabaki zuen Jarrai, Haika eta Segi “talde terrorista” direla. Garikoitz Etxeberria eta beste 22 kideri seina urteko kartzela ezarri die; atxilotzeko agindua eman du.



HILAK 5 ▶ Errege magoen kabalgata izan zen. **HILAK 12** ▶ Txotx denboraldiaren hasiera ekitaldia Añota sagardotegian. **HILAK 13** ▶ Azpeitiko danborradaren 50. urteurreneko jaialdia. **HILAK 14** ▶ Azpeitia-Elgoibar mendi irteera Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. **HILAK 19** ▶ San Sebastian bezpera; helduen danborrada. **HILAK 20** ▶ San Sebastian eguna; haurren eta helduen danborrada. **HILAK 26** ▶ Akaturen kontzertua Orkatz Kultur Elkartearen. **HILAK 27** ▶ I. Emakume Pilotari Txapelketaren finala.

OTSAILAK 18 (jai karnabala) ▶ 09:00etan diana. 10:00etan krosa. 11:00etan diana. 12:00etan sokamuturra. 12:30ean Itsasiren artzain-inudeak. 16:15ean *Idiarena* Plaza Txikian. 16:30ean sokamuturra.
OTSAILAK 19 (astelehen karnabala) ▶ 10:00etan goiz eresia. 10:30ean zezen txikiak eta poniak plazan. 16:00etan ume jolsasak Olazko Amaren plazan. 16:30ean sokamuturra. 20:00etan bandaren kalejira. 23:00etan Itsasiko ttuntturroak; txarangak. 01:30ean mozorro lehiaketako sari banaketa udaletxean.
OTSAILAK 20 (astearte karnabala) ▶ 06:30ean goiz eresia. 07:00etan sokamuturra. 10:00etan herriko banda gaztearen txaranga. 12:00etan txaranga. 16:00etan umeentzako parkeak Olazko Amaren plazan. 16:30ean sokamuturra. 20:00etan zezenaren hileta plazan.



KARNABAL DOINUEN CD-AREN AURKEZPENA.

Azpeitiko Udal Musika Bandak eta herriko abesbatzek karnabaletako abestiak bildu dituzte CD batean. Udaletxean aurkezpena egin eta musika emanaldia egingo dute arkupeetan.

OTSAILAK 11 ▶ 12:00etan ▶ Udal areto nagusian ▶ Udalak antolatuta

ESTANIS AIZPURU ▶ Ardozaleak elkarteko kidea

“**Kaldereroak ez daude errotuta eta parte-hartzea geldituta dago**”

Estanis Aizpuru Ardozaleak elkarteko kidea da eta 1993. urteaz geroztik dihardu kaldereroen festako antolakuntzan. “1992ko San Sebastian bezperan Jose Luis Frantzesenarekin topo egin nuen kalean eta hark esan zidan Kalderero eguna desagertzeaz zegoela, jendeak ez zuelako festan parte hartzen. Orduan, nik erantzun nion nire elkarteko kideekin komentatuko nuela eta haiei irteeta proposatuko niela”, dio Aizpuruk. Eta horrelaxe, 1993an hasi zen Ardozaleak elkartearen Kalderero eguneko ekitaldien prestaketa bere gain hartzen.

Estanis Aizpuruk uste du 1995. urtea garrantzitsua izan zela Kalderero egunarentzat. “Urte horretan erabaki genuen herriko pertsonaia esanguratsuei omenaldiak egin eta karroza berria eraikitzea”.

Haren ustez, festa hau ez da inoiz azpeitiarren artean errotu. “Kaldereroetako parte-hartzea geldituta dago, ez dirudi gora egingo duenik. Gazteek ez dute irtetzen, nahiz eta umeak gustura aterata”.

Antolaketak lan asko ematen die eta, ondorioz, aurrekontua ere handia da. Izan ere, gauzak behar bezala ateratzeko asto bila joaten dira Oñatzera, ehun lagunentzako afaria antolatzen dute eta urteroko omenduei oparia erosten diete. ◀

OTSAILAK 10 ▶ **Kaldereroak.**

- ▶ 22:00etan.
- ▶ Aranetik abiatuta.
- ▶ Ardozaleak elkarteak antolatuta.

...ETORRI




Besterik ▶

SANTA AGEDA JAIK **Matxinbentan**

OTSAILAK 2 ▶

Festa hasierako suziria.

- ▶ 20:00etan.
- ▶ Eliz atarian.
- ▶ Matxinbentako Festa Batzordeak antolatuta.



OTSAILAK 3 ▶

Bertso afaria.

- ▶ 21:00etan.
- ▶ Matxinbentako tabernan.

OTSAILAK 4 ▶

Herri kirolak.

- ▶ 17:30ak aldera.
- ▶ Frontoi berrian.



NOLA

egin aurrera?

Bake eta konponbide prozesua hiltzorian al dago? Zerk hutsegina du orain arte? Zer egin daiteke? Herritarrok ba al dugu zereginik?...

► Testuak: Mainer Zendoia

ETaren abenduaren 30eko atentatuak lurrikara eragin du bake eta konponbide politikorako prozesuan. Iazko martxoaren 22an ETak su-eten iraunkorra eman zuenetik, ordea, ez da atentatua bakarrik gertatu: kartzela politikak berdin segitu du, kale borroka, Iñaki de Juana presoaren gose greba bi iritzi artikulugatik 12 urteko zigorra jasotzeagatik, ETaren lehergai lapurreta, *Haika-Segi* auziko epaia, epaiketa politikoak, Batasuna legez kanpo... Nola egin aurrera? Hona 15 herritarren iritzia.

RAMON ETXEZARRETA ►
PSE-EEko zinegotzia Donostian

“Aukera galduetatik asko ikasten dela pentsatzen dut”



“Zergatik egin duten aztertzen eta azaltzen ibili baino, hobe genuke ETakoek atentatua zertarako egin duten galdetzea. Zertarako? Ez dago inor abenduaren 29an baino hobeto. Ilusio handiz hasi zen prozesua, edo dena delakoa, eten egin dute, orain eten dutenak besteak direla sinestarazi nahi badigute ere. Aurrera begira, pentsatzen dut aukera galduetatik asko ikasten dela baina ez dakigu beste aukerarik izango den.

Beste aukera bat berehalakotasunez baletor bezala baldintza egokiak jartzen saiatu beharko dugu”.

XABIER AZKARGORTA ►
futbol entrenatzailea

“Bonben eta hilketen bidetik ez dago ezer”



“Nik uste dut bake prozesua etenda da-goela; bonba hori eteteko modukoa izan da, argi eta garbi. Lehenengo gauza, aurrera begira eman beharreko pausoa garbi-garbi dago: nik uste dut bonben eta hilketen bidetik ez



dagoela ezer, hori da lehenengo geratu behar dena. Orain arte ahaleginak egingo ziren alde batetik eta bestetik, baina abenduaren 30eko bonba horrek dena zapuztuta utzi du. Bonbak eta istorio horiek guztiak geratu gabe, nik uste dut ez dagoela ezer”.

ALAITZ OLAIZOLA ▶
antzerkiegilea

“Hitza egiten segitu behar da, ez dago atzerapausorik”



“Nik uste dut, gertatutakoa egundokoa izanda ere, segitu egin behar dela hitz egiten, ez dagoela

orain atzerapausorik. Ezin dugu orain dela hamar hilabeteko hartara bueltatu. Hitz egiten segitu beharra dago. Argi dago herritarrek askoz indar handiagoa egin beharko dugula, orain arte pixka bat erlaxatuta egon baikara. Agian, gure garaia iritsi dela pentsatzen dut; izan ere, hemendik kanpokoei, herritar bezala, ez dakit zenbat axola zaien prozesua, baina guri, ez dago dudarik, axola zaigula. Eta nik uste dut urte bukaerako hori eta gero, berriro zalaparta pixka bat egon dela jendearen artean. Haserrea, pena edo zerbait egin behar denaren sentrazio hori areagotu egin dela, alegia”.

nik ze pentsazetan pakiatik?
ba... oso politte dala.
Txintxo portau ber da danak
gustoa bizitzeko, ezta?



▶ Egilea: Andoni Salegi

JOSE LUIS FRANTZESENA ▶

musikaria eta bandako zuzendaria

“Indarkeriarekin eta hizketa gabe hemen ez dago ezer”



“Gaur egungo egoeran zeharo moztuta daude hizketako kontu horiek eta, nire ustez, hizketa da berri ere derrigorrez egin behar dena. Bakea ez da batek arrazoia izatea, baizik eta guztion artean egiten den harmonia. Hori banta batean bezala da: denek dute euren instrumentua, batzuek indar handiagoarekin eta besteak txikiagoarekin. Baina bakoitzak bere iritzia bota eta adostasun batzuetara iristen saiatu behar dugu. Nahiz eta ezkerraldekoek eta ETak esan lehen bezala segitzen dugula, bistan da alderdi sozialistak-eta ez dutela horrela ikusten. Hortaz, prozesua dagoeneko eten egin da. Honek orain barealdi bat beharko du eta ea berriro hasteko modua aurkitzen den. Hizketarik gabe eta indarkeriarekin hemen ez dago ezer”.

MAIDER EGIGUREN ▶
preso ohia

“Gure hitza eta erabakia aldarrikatu behar ditugu”



“Martxoaren 22az geroztik atxilotetak, De Juana hiltzorian eta bizitza osorako zigorrak ehundaka preso politikorentzat, torturatuak, milaka herritar ordezkaritza politikorik gabe, antolakuntza eskubidea ukatua... Orain, berriz, Jarrai, Haika, Segi gazte antolakundeen kontrako epaia, *Kafe* gure herritarra tartean dela. Eta hori dena eta gero zer? Zerk eten du bake prozesua, egon bada bake prozesurik? Praktikan alde bakarreko borondatearekin ezinezkoa da biren kontua omen den prozesua aurrera ateratzea. Zorionez, gatazkaren konponbidea ez dago Espainiako eta Frantziako esta-

tuen esku bakarrik, euskal herritarrok gure hitza eta erabakia aldarrikatu eta gauzatu behar ditugu. Benetako prozesu bat zinezko baldintza demokratikoetan eman dadin, horien exijentzia eta eraikitzea bermatu behar dugu”.

KIKE ZURUTUZA ▶
Batasuneko kidea

“Elkarrizketaren bidez bideak berreraikiko dira”



“Garbi dagoena da aurrera egiteko aukera egon badagoela, eta oso gauza garrrantzitsu bat: aurrera egin behar dugula. Atentatu horrek gauzak nolako gordintasunean dauden adierazi digu. Nik uste dut aurrera egin behar dugula herri bezala eta bakea behar dugula. Alde batetik, aukerak badaude. Bestetik, aukerak egotea behar dugu. Bake prozesua zer den azpi-azpitik aztertu beharko genuke. Egia esanda, oso garai kritiko batean gaude eta egoera oso gordina da. Nik uste dut ETak bere agirian garbi azaldu duela bake prozesu bati eusteko borondate osoa. Neure iritziz, elkarrizketaren eta akordio politikoaren bidez nolabaiteko bideak berreraiki eta sortuko dira beriz ere”.

PEDRO ILLARRAMENDI ▶

“Bi aldeek egin behar dituzte keinuak”



“Pazientzia handia izan behar dugu, baina elkarrizketako ideia horri segitu egin behar diogu. Asko nahigabetu gaitu gertatu Barajasen denak, baina hori neurri batean jakin behar zen; agian, arrazoi batzuek ere bazeudelako. Bi aldeek keinuak egin behar zituzten eta dituzte. Hor ere pazientzia pixka bat behar dugu, igual luze joko duelako prozesuak. Ezkerraldeak eta ETak pauso bat ematea interesgarria izango litza- ▶▶

► teke. Euren pentsatzen badute politikatik joan behar dutela, atentatua gaitzestea normala izango litzateke. Baina besteek esaten dute, 'Hori ez baduzue egiten, ezta legalizatu ere ez zarete egingo'. Hor ez dago elkar juntatzerik, nik ez dut formularik, ez dut hori zuzentzerik, baina bi aldeek egin behar dituzte keinuak".

MAITE SEGUROLA ►

Bilgune Feministako kidea

"Formula zaharkituak baztertu egin behar dira"



"Egoera politikoa berriz ere belztu da abendu bukaeratik. Hilabeteotan askorik aurreratu ez bada ere, Barajaskoak argi utzi du luzea izango dela konponbidetarako bidea. Aurrera egiteko bide bakarra alderdi politikoen elkarriketarako gutxienekoak adostea da, formula zaharkituak baztertu eta konponbidea lortzeko asmoak benetan gauzatzen hastea eta ez, alderdiak orain arte aritu diren bezala, interes propioak babestea. Prozesua ez dago etenda, aspalditik dago ezin aurrera eginda. Zerikusi handia dute PSOEek PPrekiko erakusten duen morrontza eta gatazkak duen oinarri politikoa ez aitortzeak".

XABIER EUZKITZE ►

kazetaria eta bertsolaria

"Elkar ulertzeko borondatea behar da akordioak lortzeko"



"Garrantzitsuena aurrera egin nahi izatea da, etsiak jo eta geldirik egoterik ez dugula garbi izatea. Bideak eta moduak badaude, aurkitu nahi izanez gero. Espainiako Gobernuaren eta ETaren arteko harremanak etenda daude, baina beste hainbat zubi interesgarri eraiki da menia benetakoa zela uste izan dugun bitartean. Horiek -euskal alderdien arteko harremanak bereziki- ez dut uste eten-



ETako hiru kide Oiartzunen iazko irailean, Aritxulegin.



Iñaki de Juana presoaren argazkia.



Barajasko aireportua, ETaren atentatuaren ondoren. Eskubian, herrian atentatua salatzen egindako elkarretaratzea.



da daudenik; aldatuta bai, baina. ETak ez dio Espainiako Gobernuari iruzur egin, herritarroki baizik, eta alderdiek ere gurekiko, herritarren desioekiko konpromisoak bete behar dituzte. Gauzak makurren daudenean da beharrezkoen elkarriketa. Akordioak lortzeko beharrezko baldintza asko dago, baina bat ororen gaitetik: elkar ulertzeko borondatea".

PAKO ARISTI ►

idazlea eta kazetaria

"Politikoei euren ispilu nartzisista puskatu zaie"



"Badirudi leherketa horrek mundu guztia deskolokatu duela. Beraz, berriro birkolokatu beharko du jende guztiak. Atentatua basatia izan da, latza, eta bi lagun hil direla ahaztu gabe, iruditzen zait bake prozesuak orain indar berri bat

har dezakeela, bide garbiago bat. Politikoi efektu ona izan dezake leherketa horrek: politikoei euren ispilu nartzisista puskatu eta errealitate krudela agertu zaie begien aurrean. Errealitate horrek hau dio: 'Jaunak, ez zineten ezer egiten ari, ez zineten egiatan ari; beraz, espabila zaitzete! Uste dut ez dela bake prozesurik ere egon. Beste nazio batzuetan ikusi ditugun prozesuen ondoan hemengo hau txiste txar bat zen, karikatura bat. Hortaz, ez da eten, ezer ez zegoelako. Eten da prozesuaren itxurakeria bat, moztuak erori dira, Barajasko aparkalekuarekin batera. Alderdi bakoitzak agertu beharko du zer emango duen prozesuaren alde; alegia, gizarte normaldu baten alde, aspirazio zehatz batzuk dauzkan herri baten alde. Alderdi bakoitzak neurtu behar du nolako indarra daukan jokaleku berrian eta zer galtzeko prest dagoen".

PAKO GARMENDIA ►

soziologoa

"Herri gizarteak behar du etengabeko protagonismoa"



"Gurean prozesu kontrajarriak ditugu martxan. ETako buruzagiek, Zapatero presidentek eta Ibarretxe lehendakariak buruan dituzten prozesuak oso ezberdinak dira, bakeari eta demokraziari buruz iritzi antagonikoak dituztelako zenbait puntutan. Euskal herritarrek beren aukera politikoa adierazteko askatasuna izan duten hainbat eta hainbat hauteskuntetan adierazi izan den borondate politikoa ez dute sekula errespetatu izan ETakoek. Baina ezin ahaztu, Espainiako Gobernuko oraingo Barne ministroa bera, GALen gobernuko bozemailea izan zela. Demokrazia herritarren erabakian oinarrituko



Torturaren kontra Azepeitian egindako elkarretaratzea.



Hitza eta erabakia lelopean herrian egindako manifestazioa.



Garikoitz Etxeberria Kafe –biribilean–, Haika-Segi auzian duela bi urte emandako epaian, Madrilén.



Kafe-ren alde herrian egindako manifestazioa.

bada, herri gizarteak behar du etengabeko protagonismoa, bere aniztasun osoan, lehendakariak dioen bezala”.

MARIA JESUS ARREGI ▶

Lokarriren ekimenetako partaidea

“Herria lo dago, politikariek egindakoarekin conforme”



“Niretzat, gure herriak gatzka bat dauka eta, sustraia joaten ez bagara, zaila ikusten dut konponbidea. Ondorioz, sustrai hori non dagoen garbi izan behar dugu. Sufrimendu handia dago, gero eta handiagoa, eta konponbidea zaildu egiten dute min eta sufrimendu horiek. Herritarren artean sufrimendurik ez balego, herritarrek errazago bultzatuko lukete, baina minduta dagoenak alderdikeria handiagoarekin jokatzeko du. Iruditzen zait gatzka ho-

netan denok utzi behar dugula pixka bat. Bestalde, heriotzak ez ditugu onartzen, baina beste injustizia asko ere hor daude eta isilik pasatzen ditugu; auzi judizialak eta espetxeratuak hain kanpo egotea, adibidez. Nire iritziz, dena politikarrien gain daukagu utzita eta herria lo dago, haiek egiten dutenarekin conforme, eta hori ez zait ondo iruditzen. Herriak ere zerbait esan behar du eta politikariek zerbait entzun behar diote herriari; herri guztiari, alderdi denei”.

PATXI AIZPITARTE ▶

Donostiako bikario nagusia

“Elkarrizketari heldu behar zaio, autokritika eginda”



“Abenduaren 30eko atentatua larria izan da: Carlos Alonso Palate eta Diego Armando Estacio

ekuatoriarren heriotzek eta Barajasko aireportuan eragindako txikizioek erabat astindu dute bake prozesua. Lurjota utzi gaitu gertaerak, egia esan. Gure gizartea bereziki sentibera da oinarrizko giza eskubide den bizitzaren aurrean, eta heriotzekin zaila da bake prozesuaren dinamika jarraitzea. Biolentzia eta indarkeria –era guztietakoak– soberan daude egungo gizarte bizitzan. Dena den, itxaropenari eutsi nahi diogu atentatuaren ondoko tristezia eta etsipenaren ondoren. Bakea posible da, baina korapiloa ez dago indarrez askatzerik. Ezta jarrera mugigaitzen bidez ere. Autokritika serioa egin eta elkarrizketari heldu beharko zaio berriro, lehen edo gero. Eta gatzkari irtenbide gizakoi eta konponketa adostu bat aurkitu. Prozesuan parte diren alde guztiek lehialtasunez jokatu beharko dute elkarrekin”.

JOXE LUIS AIZPURU ▶

kazetaria

“Geldiune garaia etorriko da, udal hauteskundeak arte”



“Hor ikusten dena da Espainiako Gobernuak orain pixka bat atzera egingo duela, EAJrekin batera. Geldiune garaia etorriko da, udal hauteskundeak pasatu arte bai, behintzat. Ezer ez da mugituko sei edo zortzi bat hilabeteetan; geldirik egongo da, usteltzen ari den ur geldia bezala. Bake prozesua formalki etenda dago; parte batek esaten badu etenda dagoela, hori etenda dago. Gero berriro piztuko den ala ez? Ni konbentziturik nago berriz ere piztuko dela, lehenago ala beranduago. Orain, ordea, udal eta foru hauteskundeak izango dira maiatzean eta Espainiakoak 2008an. Orduan, 2008ko hauteskundeak norik irabaziko dituen da kontua. Agian, orain beharko zuena, hemendik urte eta erdi batera izango da”.

PEDRO OTAEGI ▶

aktorea

“Alde denek zerbait eman behar dute, mahaian jarrita”



“Oraindik ere fedea daukat bake prozesuan. Baina hizketan egin behar dugu alde guztiok. Hori

bai, alde denek zerbait eman behar dute, eta mahaian jarri eta hizketan hasi behar da. Okerra bi aldeetatik dago. Ezker abertzalekoek gauza finko batzuk dituzte, eta hori ez bada, zero, hortik ez dago. Beste aldekoek, berriz, ez dute ezer eman, eta hamar hilabete pasatu dira... Bake prozesua etenda al dagoen? Ni nahiko ezkor nago, eta uste dut oraingo prozesua puskatu egin dela eta beste berri bat sortu beharko litzatekeela. Atentatu horrek ipurdiko handia eman dio bake prozesuari”. ◀

MIREIA EPELDE ▶ txirrindularia

“Profesionaletara pasatzeak ez dit gehiegi eragin neure eguneroko bizitzan”

▶ Testuak eta argazkiak: Ane Aranburu

Azkar-azkar

Bizikleta. Gustukoa.
Errepidea. Lanak amaiten dituen.
Karrerak. Gozamena.
Lana. Egin beharrekoa.
Herria. Gustuko lekua.
Familia. Aurrera egiten lagundu nauena.
Etorkizuna. Auskalo.



“Telebistan

ez da inor agertu emakumeen Tourrik eta Girok, eta egon badaude”



Gehienentzera ikasiko zuten, segur aski, Mireia Epeldek ere bizikletan ibiltzen. 10 urte eskas zituela hasi zen, hala ere, Peña Elortza Azkoitiko txirrindulari elkartearekin korritzen. Duela gutxi, txirrindularitza profesionalerako jauzia ematera iritsi da. Gabonetan sinatu zuen kontratua Bizkaia-Panda SW-Durango taldearekin, denboraldi baterako.

Gustura al zaude talde berriarekin?

Oso. Gabon inguruan sinatu genuen kontratua eta gustura nago. Hamar neskak osatzen dugu tal-

dea. Zortzi lehen elkarrekin korritzen ibilitakoak gara. Beste biak espainiarra eta suediarra dira. Emakumezkoen txirrindularitzan gabiltzanok asko ez garenez, guztioz ezagutzen genuen elkar lehenagotik eta oso giro ona dago taldean.

Profesionalerako egindako jauziak eragin al du zure eguneroko bizitzan?

Ez gehiegi. Entrenatzeko denbora gehiago behar duzu, mailak horrela eskatzen duelako, baina ez dut arazorik izan moldatzeko. Lehen bi orduko entrenamenduak egiten banituen, orain bi

ordu eta erdikoak egiten ditut. Hor dago aldea baina, bestela, ikasketetan-eta ez dit eragin. Duzun denbora antolatzen jakin behar, eta gustura sentitzen naiz egunean zehar zeregin desberdinak izanda.

Bakarrik entrenatzen al zara?

Normalean, bai. Etxetik bakarrik irteten dut baina beti aurkitzen duzu norbait errepidean. Nik buelta hartzen dut edo besteak, eta horrela elkartzen gara. Hori bai, aurkitzen ditudan guztiak multak dira. Ekipoko bat Aizarnabalgoa da baina ordutegiagatik edo ez dugu inoiz elkar topatu. Oso neska gutxi ikusten da errepidean bizikletarekin.

Lehen lasterketa haiek bizikletaren gainean zer moduzkoak izan ziren?

Gogoratzen dut jubenila nintzela Asturiasen [Espainia] pistako txapelketa batean parte hartu nueneko hura. Han ezagutzen ez nindutenez, hasieratik eraso jotzeko agindu zidaten eta besteen erantzunaren arabera ikusiko zutela gero zer egin. Horrela, eraso jo nuen eta neu bakarrik joan nintzen 50. birara arte lasterketaren buruan. Bukatzeko hamar itzuli gelditzen zitzaizkidala, ohar-tu nintzen manillarra bere lekutik askatzen ari zitzaidala. Okertzen okertzen, 90° jiratu zen arte. Horrela egin nituen azkeneko bueltak baina lasterketa irabaztea lortu nuen.

Gizonezkoen txirrindularitzak sona handia hartu du komunikabideetan. Emakumezkoenak, aldiz...

Egoera ez da batere ona. Telebistan ez da agertu, oraingoz, emakume txirrindularien lasterketarik, ez Tourrik, ez Girorik, eta egon

badaude. Hala eta guztiz, nik uste Joane Somarribak bultzada handia eman diola emakumezkoen txirrindularitzari Euskal Herrian. Joane asko ibili da atzerriko taldeetan eta uste dut, bultzada horren eragilea, bere azken urteak Bizkaiko taldean egitea izan dela.

Pertsona erreferentea izan da Somarriba emakumeen txirrindularitzan. Aritu izan zara harekin. Zer moduz?

Oso gustura. Egun osoko irribarra da Joane. Beti dago laguntzeko prest. Joaneren laguntzaile bezala korritu izan dut Euskal Herriko biretan. Gogoratzen dut behin nola Elgetatik Azkaraterako bidea egin behar genuela-eta, Soroluzeko bidea oso gogorra egiten ari zitzaidala eta nahikoa egin nuela erabaki nuen. Horretan pentsatzen ari nintzela, Joane etorri zen atzetik eta aukitik bultzada egin zidan. Ni harrirituta gelditu nintzen. Emakumeen txirrindularitzan erreferente izateaz gain, laguntzeko prest agertzen da beti hura.

Ba al dago bizitzerik txirrindularitza?

Ez, normalean emakumeon txirrindularitza bakarrik ezin da bizimodua atera. Aparteko lana beharrezkoa da. Gizonezkoenak urteetako kontratuak izan ohi dira; emakumezkoenak, aldiz, urtebetekoak. Horrez gain, emakumezkoetan dirua lortzea oso zaila da, telebistan agertzen ez garelako, eta azpiegiturak garestiak dira. Hortaz, urte batean babeslea aurkituta ere, baliteke hurrengoan babesle horrek asmoz aldatzea. Gauza asko dago aldatzeko. Talde gehiago behar dira, gurea da Espainiako Estatuan profesionalerako bakarra. ◀



Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak egiten dira



81 53 35



eta zein da ZURE IZENA?

laz jaiotako herriko haurren izenen eta duela 50 urtekoen artean aldea dago. Lehen Ignacio, Arantxa... ziren. Orain Unai, Ane...

► Testuak: Ihintza Agirretxe

Eta zein da zure izena? Nola? Ez dizut ulertu!". Gaur egun zenbat aldiz toztzen den horrelako zerbait bizitzea... Izan ere, izen ezberdin eta berezi asko jartzen dizkiete haurrei, eta askotan behin eta berriro izena esateko esaten diete umeei. Jose, Juan, Olatz eta Arantxa bezalako izenek gaur leku txikia dute haur jaioberrien artean eta errazagoa da Malen, June edo Auritz ezagutzea.

Beste hainbat arlotan bezala, pertsonen izenek ere moda segitzen dute. Orain 50 urte ohikoak ziren izenak, gaur egun ez dira ibiltzen, zaharkitutako izenak dira. Baina zer izen ziren modan orain 50 urte? Eta orain?


Kanpokoak

Ignacio, Arantxa eta orain 50 urte erabiltzen ziren ia beste izen guztiak Euskal Herriko izen tipikoak ziren, baina 2006an jarritako izenen artean ere nabari daiteke herrian etorkinek badutela lekua. Nahiz eta oraindik gutxi izan, Marokoko izenak eta Hego Ameriketako ohikoak direnak aurki daitezke Azpeitian.

1956an Azpeitian jaiotako haur gehienek bi izenez osatutakoak zituzten; hau da, izen konposatuak. Horietan ia beti izaten zen Juan, Jose edo Maria bezalako izenen bat. 1956an jaiotako mutilen artean Ignacio izan zen gehien erabiltako izena. Batzuk Ignacio soilak ziren, besteak Juan Ignacio, Jose Ignacio... Emakumeen artean, berriz, Olatz edo Maria Olatz eta Maria Aranzazu eta Arantxa izan ziren ohikoak. Begoña izena ere, nahiz eta haur gutxiagori jarri, izen erabilia izan zen garai hartan.

Baina garaiak aldatzen doaz, eta gaur egun oso guraso gutxi jartzen diote euren haurrari Ignacio edo Arantxa izena. Dagoeneko izen horien moda pasatuta dago eta gaur erabiltzen diren izenak oso bestelakoak dira.


Hala, 2006an jaiotako haurren artean Unai izan zen izen ohikoena. Mutilei jartzen dizkieten izen ohikoak, Unai bera ez ezik, Julen, Aner, Haritz edo Aritz eta Iker dira. Nesken izenen artean, berriz, ez da hain erraza joera zein den jakitea, ez dagoelako erabat nagusitzen den izenik. Hala ere, 2006an nesken izen ohikoak



Ane eta Nerea izan dira; Malen eta Aiora ere erabiliak izan dira. Baina nesken izenak ez dira horrenbeste errepikatzen, aukera zabala erabili izan da.

► **GRAFIA.** Orain 50 urteko izenen artean oso gutxi dira, ia bate-

re ez, euskal grafiaz idatzirikoak; 'Arantzazu'-ak Maria Aranzazu ziren, 'Iñaki'-ak Ignacio... eta horrela beste hainbat. Oraingo izenei begira, pauso bat behintzat, eman dela ikus daiteke; gaurko ia denak dira euskal grafiaz idatzitakoak, baina ez guztiak. ◀



ADIO, GONTZALO!

Gontzalo Pelaez musikaria urtarrilaren 7an hil zen, 59 urte zituela, gaixotasun baten ondorioz. Jaiotzez Olaberrikoa bazen ere, 1974. urtean Azpeitira etorri zen bizitzera. Egan musika taldeko partaide zen. Baxu-joleak 20 urte eman zituen taldean, 1994an taldea uztea erabaki zuen arte. Ondoren, Trabuko eta Kiñu taldeetan ere aritu zen. Argazkian, gaztea zela, musika munduan emandako lehen pausoetan.

► Testua: Maider Zendoia ► Argazkia: Jose Mari Pelaez

Efemerideak ▶ otsaila



Loiolako etorbidea.

karnabalak baino GEHIAGO

Urteko bigarren hilabetea, mozorrotzeaz gain, gauza ugari gertatu izan da herrian

▶ Testuak: 'Azpeitiko efemerideak' liburua (Imanol Elias-Uztarria)

OTSAILAK 8-1997 ▶

Urrestildarrak irabazle. Urrestilla Sokatira Taldeak goma gainean 569 kiloko Euskal Herriko txapela irabazi zuen.

OTSAILAK 17-1977 ▶

Basazabal eraberritzeko bai-mena. Espainiako Heziketa eta Zientzia Ministerioak Basazabal etxea berriztatzea onartu zuela jakinarazi zuen.

OTSAILAK 19-1967 ▶

Aizkolari arteko neurketa. Mikel Berakoetxea eta Joxe Inazio Orbegozo *Arriya* neurtu ziren 20 enbor 54" lanarekin. Berakoetxeak irabazi zuen 78'14" denborarekin. Arriya 17. enborrean erretiratu egin zen.

OTSAILAK 21-1807 ▶

Edariak garesti. Tabernetan egiten ziren gehiegikeriak kontuan izanik, tabernen leihoetan orri batzuk jartzea erabaki zuten; horrela, hurbiltzen zirenek nolako prezioak zituzten jakiteko. Goizetik ilunabarrera bitartean egon beharke zuten horiek ikusgai; beste-



Basazabal eraikina.

la, lehen aldian jabeari bi pesoko isuna ezarriko zioten.

OTSAILAK 24-1927 ▶

Ur faltan. Loiola auzora ura ekartzeko lanak onartu zituzten eta Joxe Luis Lopetegik egin zituen.

OTSAILAK 25-1787 ▶

Ohorezko harrera. Parrokiko patroia zen Granadako Dukea zertorrela-eta, bere ospari egokitzeko zitaion ongi-etorria eta erakustaldiak egiteko prestaketak egitea erabaki zen; Azkoitiko mugara irten zuten agintariek. ◀

Pertsonaia ▶

GARATE ANAIA.

Frantzisko Garate Aranguren, Errekarte baserrian jaio zen orain dela 150 urte; 1857ko otsailaren 3an, hain zuzen. Jesusen Lagundiko anaia Deustuko Ikastetxe nagusiko atezaina izan zen eta aita santuak 1985eko urriaren 6an beatifikatu egin zuen.



Datua ▶

5

URTE KULTURALDIA ABIATU ZELA.

2002. urteko otsailaren 23an jarri zen abian Uztarria Kultur Koordinakundeak antolatutako Kulturaldia. Dagoeneko bost urte pasatu dira herriko kultur dinamika eta parte-hartzea sustatzen dituen ekimena martxan jarri zenetik.

Argazkia ▶



SOKAMUTILEN OMENEZ.

Jabier Iraetak sokamuturrari eskainitako eskultura inauguratu zuten 2002ko otsailaren 12an, jai karnabalean. Gernikako arbolaren aurrealdean kokatutako irudiak Azpeitian errotutako tradizioari omen egiten dio. Argazkian, inaugurazio ekitaldian sokamutilak-eta.

Kontua da... ▶

Euskara aginduetan



Imanol Elias
Odriozola

Antzinatek egiten zitzaion derrigorrezkoa herriari agintarien aldetik hartzen ziren erabakien berri herritarren artean zabaltzea eta, horretarako, XIX. mendera bitartean behintzat, elizaren laguntzaz baliatu ziren. Alde batetik, agintari berriak izendatu ondoren, lehen batzarretan hartzen zituzten erabaki eta aginduak ematen ziren ezagutzera erretorearen bidez pulpitutik meza garaian. Berdin jokatzeko zuten urtean zehar hartzen zituzten deialdi eta aginduak zabaltzeko unean ere.

Aparteko beste datu interesgarri bat aipatu behar da, ordea, gaiari buruz. Ohikoa zen agintarien aldetik, ofizialki behintzat, erabaki eta agindu horiek gaztelaraz idatzita jasotzea, nahiz eta seguruenik behin baino gehiagotan erabili euskara beraien artean erabakiak hartzeko. Erretorearen aldetik, ordea, euskaraz zabaltzen ziren pulpitutik erabaki eta agindu

horiek. Esandakoaren ezaugarri da, 1756. urteko urtarrilaren 25ean jazotakoa: erretoreak neurriak hartzea erabaki zuen bere jokoera aldatu zuelako; hau da, pulpitutik erabakien eta aginduen berri herritarren artean zabaltzeari uztea erabaki zuen.

Jokoera ulergaitza zen herriko agintarientzat, bat-batean moztzen zuelako betidaniko ohitura. Horrela gauzak, agintariak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jartzea erabaki zuten, derrigorrezkoa ikusten zutelako herritarrei aginduak elizaren bidez zabaltzea, guztiek ulertuko zuten hizkuntza erabilia.

Idatzi baten bidez eman zioten gertatzen zenaren berri Aldundiari. Era berean, Iruñeko Apezpikuari erregutu zioten zuzentzeko eskaera. Apezpikuaren erantzunak ez zituen azpeitiar agintarien nahiak bete, eliza ekintza horietarako ez zela erantzun baitzuen.

Garai bateko Azpeitia ▶ Saturnino Gonzalezek kontatua

festako PIROTEKNIKOA


Bere herrian bizi zuen egoera gogorak bultzatu zuen Gonzalez maletak egitera eta dagoeneko 49 urte daramatza Azpeitian

▶ Testua: Maider Zendoia

Saturnino Gonzalez duela 49 urte etorri zen Azpeitira bizitzera. Cantalpinon (Salamanca, Espainia) jaiotakoa bada ere, ia mende erdian dago Azpeitian.

1958. urteko urtarrilaren 8an iritsi zen Gonzalez herrira. "Orduko bizimodua oso gogorra zen nire herrian. Soroan lan egiten genuen, lastozko zakuan egiten genuen lo eta zortzi egunetik behin itzultzen ginen etxera aldatu eta ohean lo egitera", dio Gonzalezek. Ez ziren garai errazak eta, Azpeitian bizi zuen familiarterko batek animatuta, bertara etorri eta lanean hasteko erabakia hartu zuen.


Azpeitira iritsi bezain laster hasi zen lan bila, baina ez zen gehiegi saiatu, hurrengo egunean bertan hasi zelako beharrean. Pasadizo hura gogora ekartzean irribarreak irteten dio. Itxura denez, kontratazio arduradunari gizonetako harentzako lanik bazegoen galdetu ziotenean, hark erantzun zien ezkondua ala ezkongabea zen.



Sanjuandegi aldean zegoen Etxetxo baserria, 60. hamarkadan. N. URANGA

“Ni hona 1958an iritsi nintzen eta Sanjuandegi auzoan ez zegoen ezer, dena baratzez josita zegoen”

SATURNINO GONZALEZ ▶ erretiratua



Ezkongabea zela esatean, hurrengo egunean bertan lanean hasteko esan zioten. "Garai hartan, enpresaburuek puntuak ordaintzen zituzten umeko eta, ondorioz, ezkongabeak nahiago zituzten", esaten du Gonzalezek. Handik hiru hilabetera, ordea, ezkondu egin zen.

Herriko hainbat enpresetan aritua da lanean. "Lafayette galdategian 20 urtean lan egin ondoren, Azpeitian itxi zen lehen altzari-enpresako langilea izan nintzen. Hangoa bukatzean, udaletxean hasi nintzen lanean, zeregin txikitian". Eginkizun horien artean, Azpeitiko festetako su artifizialen arduraduna izan da. "35 urte igaro ditut Azpeitiko festetan suzko erroberak botatzen".

Garai bateko Azpeitia eta oraingoa zeharo desberdinak direla uste du. "Ni hona iritsi nintzenean -1958an-, Sanjuandegi auzoan ez zegoen ezer, dena baratzez josita zegoen". Azpeitian gustura bizi izan dela aitortzen du, baina "jaioterria beti botatzen da faltan". ◀

Hitz gezidunak ▶

	Sumendi-aren aho	Kupelak	Gabezia	Droga mota	Ez emea
	Irudi geometrikoa	Dokumen-tua	Filosofia-ren adarra	Iodoa	
	Harribitxi mota			Kriptona	
	Ipar EH-n, olatua			Kuiak	
* DEITURA	Txiki			Suitzako ibaia	
* IZENA	Baino			Libre	
			Militarren kolorea		
			Behartsu		
Estuasun					Nasa, moila
Zezen zikiratua					
		Kaxaren erdian		Hautua hots	
		Anno Domine		Zilegi	
Ipar EH-n, izua			Zuhaitz mota		Bokala
Jagole			Non atzikia		Hizki grekoa
				Jardun	
				Bokala	
Musika estiloa		Zein motatakoa			

* Egan musika taldeko azpeitiar kidea


Hizki zopa ▶ aurkitu beheko irudietan ageri diren baserri izenak




A	Z	I	R	E	K	A	Z	E	N	D	O
S	M	A	G	L	U	M	I	R	T	A	H
O	A	R	O	M	A	Z	L	A	D	L	E
M	X	T	H	U	A	Z	A	T	A	O	A
K	I	A	R	G	U	A	G	I	P	G	R
N	E	P	I	Z	E	H	E	D	E	A	H
T	E	R	R	I	G	A	R	R	A	P	I
I	R	A	Z	U	S	B	D	U	Z	T	A
E	A	B	D	I	T	E	I	G	A	R	R
K	R	I	L	O	S	H	T	N	A	I	R
R	E	K	O	K	E	U	X	N	E	Z	E
A	B	A	L	I	A	S	O	U	M	A	G
L	D	M	I	S	R	I	N	L	G	A	I
P	S	O	G	U	B	E	T	X	A	A	S

Soluzioak ▶

HITZ GEZIDUNAK



HITZ GURUTZATUA



UZTARRIAREN URTARRILEKO ARGAZKI LEHIAKETA



Idoia Azurmendi Uztarriako bazkidea izan da argazki lehiaketako 80. irabazlea. **Garai ileapaindegiko** bitzua irabazi du sari gisa. Argazkian, Idoia Azurmendi –eskubian– eta Maider Korta, ileapaindegikoa.

Zer dago gaizki?



ERANTZUTEN EPEA ▶

Otsailak 19 (astelehena)

NORA BIDALI ▶

Perez Arregi plaza 1, behea

AKATSA ADIERAZI ▶

ZURE IZENA / TELEFONOA ▶

IRABAZLEARI SARIA ▶

Nerea dendako erosketa txartela

PARTE HARTZEKO

BALDINTZA ▶

Uztarrarian bazkide izan behar da

ANTZIBAR
CONSTRUCCIONES
ERAIKUNTZAK

ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

arte eta diseinu ikastegia

- Dibujo eta eskulanak** (haurrak) 17:30/19:00
- Pintura** 17:30/19:00
- Talla** 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 619 586 652
matrikula urte guztian zabalik

Eskulanetako gaiak ♦ Oihalak ♦ Eskuohialak
Mahai-zapiak ♦ Izarak ♦ Pijamak

40 URTE ZUEKIN

Bustinzuriko Errebala 15 ♦ Tel. 943 81 28 62

Zaindu ▶ Kardua

Julian
Bereziartua



Karduez orokorrean hitz egitea landare familia oso batez hitz egitea izango litzateke. 'Eryngium' landa-barietatea osolanda-re basati polita da, apaingarria baina baita jangarria ere; hori bai, gaztea denean.

Oraindik ere begien aurrean dut 'Monegros' deritzan basamortuan ikusi nuen kardu ugariz osatutako pilota edo bola handi bat, haizearen eraginez bidean aurrera biraka zihola.

Hosto estuak eta zorrotzak ditu abereengandik babesteko. Ebro ibaiaren inguruan aurki daitezke. Gaztea eta samurra bada, entsaladan jaten da, gure baratzetako eskarola eta txikoria bezala. Duen mikaztasunagatik gosegarren artean sailka dezakegu.

Zuztarrean-eta, beti bezala, era sinbiotikoan, perretxiko bat hazten da: 'pleurotus eryngii' edo kardu-perretxikoa: 'kardu-ziza'. Jateko ona dela esaten da eta, aurkitu nahi izanez gero, ardiak larrean dabilzan tokietara jo behar da; ugaria da kardu ziza. Zapore leuna du eta saltsa ezberdinetan parte har dezake. Biltzeko egunik onenak udazkeneko euritsuak dira.

Kardu horiekin egindako infusioak azaleko gaitzen aurka baliagarriak dira; gazteen 'akne' deritzanaren aurka, adibidez. Diuretiko da, bestalde. Onuragarria, beraz, osasunerako.

NAGORE ALBERDI ▶ fisioterapeuta

Fisioterapeuta edo masajista, nola deitzea nahiago?

Fisioterapeuta.

Prebenitu ala sendatu?

Ahal den heinean, prebenitu.

Ohitura on bat?

Kirola bere neurrian egitea.

Eta txar bat?

Postura desegokiak.

Lesio arruntena zein da?

Lepo eta gerriko minak.

Sendagilea ala aholkularia, zer zara?

Sendatzen laguntzeaz gain, aholkulak ematen saiatzen naiz.

Gorputzeko atalik ahulena zein da?

Bizkarrezurra.

Gomendio bat?

Gorputzari entzuteko joera hartzea.

Eta azkenik, usain bat?

Kanela.



▶ Testua eta argazkia: Maider Zendoia

Abizena ▶ Arana

Armarria.

Olabarrietako armarria da honako hau. Zuhaitz bat eta bi lehoi ageri dira. Inguruan urrezko zortzi gurutze ditu bordatuta.

Esanahia.

Bailara, aranondo edo garoleku esan nahi du abizenak.

Abizenaren kokapena.

- ▶ Azpeitia.
- ▶ Beasain.
- ▶ Bergara.
- ▶ Oiartzun.
- ▶ Ordizia.
- ▶ Gernika-Lumo.
- ▶ Leioa.
- ▶ Berriz.
- ▶ Zamudio.
- ▶ Gasteiz.
- ▶ Laudio.
- ▶ Uharte Arakil.

Abizenaren hedapena.

- ▶ Arrasate (1558).
- ▶ Eibar (1631 eta 1716).
- ▶ Zestoa (1701).
- ▶ Mutriku (1741).
- ▶ Aramaio (1772 eta 1818).
- ▶ Azpeitia (1774).
- ▶ Tolosa (1775 eta 1783).



Esandakoa ▶

“ Ekainean bukatuko zait kontratua baina Realean geratzea besterik ez daukat buruan ”

MIKEL ARANBURU ▶

Realeko jokalaria

“ Bakoitzaren bizitza autonomoa da eta nahiak asko errespetatzen ditugu etxebizitza tutelatuetan ”

IRUNE BOO ▶

Atzegiko arduraduna Antxietan

Zenbat ▶

475

DANBOR-JOLE.

Danborradaren 50. urteurrena ospatzeko antolatutako jaialdira 475 danbor-jole etorri ziren Gipuzkoako 36 udalerritatik.



Gertuko pasadizoa ▶

garai bateko KARNABALAK

‘Azpeitiko jaiak’ liburutik hartua

▶ 2000. urtea ▶ Argitaratzailea: Txakel

▶ Kapituluaren kontatzailea: Joxin Beloki



KAPITULUA ▶ Debekatutako ihauterietatik egungoetaraino (181. orrialdea).

Ihauteriak debekatuak zeuden garai hartan, sokamuturra bakarrik izaten zen Azpeitian. Orain festa hauetako oinarria zezena den bezala, lehen ere horrela izaten zen.

Nik betitik ezagutu izan dut sokamuturra ihauterietan. Urte batetan orain dela hogeitamar bat urte saiatu ziren hori ere debekatu, eta urte hartan lortu zuten baina herrian sekulako istiluak egon zirenez ez da berriro horrelakorik gertatu.

Azpeitian nere lagunak, Patxi Tobera, Jesus Azpitarte, Jesus Astigarraga, Pako Xatur, Iñaki Lizaso, Bernardo Goenaga, ni neu

eta akaso beste koadrilaren bat ezik, ez zen inor mozarrotzen.

Nik gogoratzen dut lehenengo aldiz, 1955eko ihauterietan hasi ginela saltsan. Garai hartan Aizpurutxotik etortzen zen ogizalea bere karro eta astoarekin. Karroa Mendizaletako pare horretan lotzen zuen eta bere osabaren etxera joaten zen gosaltzera, ihauteriak zirela eta zerbait egitekotan ginen, jakina karroa asto eta guzti ikustean astoa karrotik askatzeko ideia zoragarria izan genuen eta gurekin ibili genuen txikiteoan tabernaz taberna.

Txikiteoaren ondoren Kojuanera joan ginen bazkaltzera. Orduan Luzilda eta Ambrosio

zeuden bertan eta hartu-eman handia genuen haiekin. Neskame, berriz, Joxe Lizasoren emaztea, Juli zen. Mozorrotzeko gogo ikaragarria genuelarik, Julik utzi zizkigun emakume erropak eta berak margotu zizkigun aurpegiak.

Gero zezenean ibili ginen, Xaturrek eta biok osatzen genuen bikotea. Oraindik gogoratzen naiz nola arrimatzen ginen zezenera eta Xaturrek pasatu zituen estuasunak soinean zeraman gona tubo harekin. Harrez gero urtero antolatu izan dugu zerbait.

Orduan azpeitiarrek lana egiten zuten ihauterietan baina guk jai hartzen genuen. Beste batean asto proba bat antolatu genuen. Oraingo honetan astoa Zaka zezenezaleak laga zigun, Errekartetxoren harria hartu, astoari lotu eta jende pila bat bildu zen hura ikustera, txikiteoan nola ez gurekin batera ibili genuen astoa, oso gustora ibili zen animalia eta Zabalaneke tabernan hogeitakroketak jan zituen.

Aguazilekin behin edo behin izan genituen liskarrak baina azkenean pakean uzten ziguten. Jendeak, berriz, izugarri gozatzen zuen gure irteera haiekin, ia guztia debekatua zegoen garai haietan. ◀

LORE SORTAK
Koroiak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
zerbitzua dugu

Tel. 943 81 51 87
Loiolabide, 25

Amenabar
DENDA

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

AZKOITIA

ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Ekain
Larrialdiak:
943 15 16 40

ALBAITARI KLINIKA



INFORMATIKA ZERBITZUAK



ORDENAGAILUEN KONPONKETA ETA SALMENTA

- PORTATILAK
- OSAGARRIAK
- BIDEO ZAINZA
- WIFI SAREAK
- KOMERTZIOTARAKO TPV-AK
- TABERNENTZAKO MUSIKA SISTEMAK...



JANDONIANIZ PLAZA 5 AZKOITIA Tel.: 943026428 Fax.: 943026329
email: etk@etkinformatika.com

www.etkinformatika.com

Telefono zenbakiak ▶

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	81 51 00
Anbul.-larrialdiak	81 12 01
Eguneko zentroa	15 71 94
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara (Jendartea)	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	943 15 09 94

LARRIALDIAK

112

Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemaile)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

Habea	15 72 00 (138)
EA	81 00 11
PSE-EE	15 72 00
PP	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08

Uztarrria Kultur Koor.	15 03 58
Kontseilua	943 59 12 00

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	665 72 39 79 / 943 08 06 88

Farmaziak gauzez ▶ otsaila

5-10-11-20

Jacome (Azpeitia).
943 08 02 58

6-23

Aranburu (Azpeitia).
943 81 13 50

7-19-24-25

Beristain (Azpeitia).
943 81 19 49

8-21

Alberdi (Azpeitia).
943 81 59 74

9-22

Garcia (Azpeitia).
943 81 12 74

1-13-14-26

Gisasola (Azkoitia).
943 85 12 35

2-15-27-28

Ruiz (Azkoitia).
943 85 19 66



DYA, GELDITU ETA LAGUNDU.

DYAKo koordinazio zentrora deituta, kontsulta mota desberdinak egin daitezke; larrialdietarako laguntza emateaz gain, errepideen egoeraren berri ere ematen dutelako, esaterako. Julian Elorza kalean edo 943 46 46 22 zenbakira deituta aurki daitezke.

Garraioa ▶ (autobusen ordutegia: www.uztarria.com/azpeitia/autobusak)

ALDALUR

85 27 18

EUSKO TREN

902 54 32 10

GUIPUZCOANA

85 11 59

PESA

21 26 99

PIPER ELK.

85 25 87

TAXIAK

81 13 07

ZAPO TXOKO

▶ Asteartea-ostirala:	17:00-20:30
▶ Larunbata:	16:00-20:30

Ateak zabalik ▶

UDALETXEA

▶ Asteguna:	09:00-13:30
▶ Larunbata:	09:00-13:00

UDALTZAINGOIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

ANBULATEGIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

IGERILEKUA

▶ Astelehena:	14:00-21:00
▶ Beste astegunak:	07:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Igandea eta jai egunak:	09:00-13:00
▶ Kanpoko igerilekua:	Ekaina arte itxita

KIROLDEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 15:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00


UDAL LIBURUTEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00
▶ Udan, Gabonetan:	08:30-13:30

IÑAKI ZULOAGA ▶ sokamutila

Adinagatik eta lanagatik utziko zionat sokari”

▶ Testuak: Maider Zendoia ▶ Argazkiak: Nerea Uranga



TXIKITAKO AMETSA.

Iñaki Zuloagari betidanik gustatu izan zaio zezenaren aurrean ibiltzea. “Nik neuk gogoratzen ez badut ere, gurasoek esaten zidatenan ganadutegi bat jarri nahi nuela umetan. Itxura denez, toreaketa-zezenen ganaduzalea izan nahi ninan”, dio.

Iñaki Zuloagari umetatik dator kio zezenarekiko zaletasuna. Orain dela 14 urte egin zen sokamutil, baina aurtengoa izango du sokaren zaindari igaroko duen azkena; karnabaletan sokari uzteko erabakia hartu du.

Noiz egin hintzen sokamutil?

1993. urtean. Aurtun 14 urte beteko ditinat sokamutil. Fernando *Pikua*-k egin zitena proposamena Errebaleko festetan. Hasi-eran, pixka bat arrapaladan harrapatu nindinan eskaintzak, baina zezena bukatzerako baiezkoa eman nionan.

Zergatik hartu duk orain sokari uzteko erabakia?

Alde batetik, adinagatik, ez naizeko batere zaintzen; bestalde, lanarengatik, hemengo festetan ez dudalako jai izaten. Norbaitek min hartuz gero, ezin dinat libre egongo naizela ziurtatu. Gainera, gazteei paso eman behar diegula uste dinat.

Galtza zuriak eskegi ondoren, jarraituko al duk zezena zirikatzen?


Etortzen uzten badidate bai, barruan daramadan sentimendua delako. Lana egin behar badut, ezin izaten dinat zezenean irten; aldiz, familiarekin etortzen banaiz, ez dinat irteten eta, horretarako, nahiago dinat ez etortzea. Nahiago dinat ikusi eta ez irtetea baino urruti egotea.

Pasadizo kuriosoren bat bai kontatzeko?

Sokamutil bezala irtendako lehen urteko karnabaletan—1993. urtean—ni neu izan nindunan zezenak harrapatutako lehen pertsona. Gainera, Iñaki Etxenagusiak sari bat irabazi zinan nire gertaeraren inguruko argazkia aterata.

Hementxe dela, hementxe dela... soka uzteko garaia...

Nostalgia puntu bat badinat baina, ahal dudan guztietan, hementxe izango naun. ◀



Azpeitiarren %87k badakite euskaraz eta Udalak 6,82ko nota lortu du Kontseiluaren neurketan.

gaindituta baina HOBETZEKO

Azpeitiak lehen postua lortu du Kontseiluak egindako euskal udalen hizkuntza politikaren neurketan, 6,82ko notarekin

► Testuak: Enekoitz Esnaola eta Maider Zendoia ► Argazkiak: Uztarria

Azpeitia da euskara bultzatzeko gehien egiten duen herria, udalerrietako hizkuntza politika aztertzeko Kontseiluak egindako azterketaren arabera. Euskal Herriko 66 herri eta hiritako udalen hizkuntza politikak aztertu ditu –Euskal Herriko bi milioi herritarri eragiten diotenak–, eta haien artean Azpeitiko Udala dago aurreneko tokian, berak lortu dituelako punturik gehien: hamarretik 6,82ko batez bestea.

Baina azterketaren inguruko ondorioak ez dira zerrendaren baitako kokalekura murriztu behar. Izan ere, aurreneko lekuan egotea pozgarria bada ere, oraindik ez dirudi euskara lehenesteko politika sistematikoa ezarri denik herrian. Kontseiluak jakitera eman duenez, “7 puntuko mugatik gora koka liteke euskara lehenesteko politika sistematikoa”. Azpeitiko Udala iristear geratu da, denetan lehena izan arren.

► **UDALA POZIK.** Ana Mendizabal Azpeitiko Udaleko Euskara batzordeburua “pozik” agertu da neurketaren emaitzekin. Haren iritziz, “balorazioa oso positiboa da, kanpoko neurketa bat egin eta herriak horrelako emaitzak lortzea pozgarria baita”. Mendizabalek Uztarriari esan dionez, Udalak egindako lana agerian utzi du azterketak, “Euskara Patronatuaren bitartez Udalak euskara arloan egindako inbertsioez konfaturatuko delako jendea”.

Kontseiluak herriko arlo desberdinak goraiatu ditu, “Udaleko atal guztiak euskaraz aritzeko gai izatea, hizkuntza paisaia euskararen erabilera nabarmentzea onartu izana eta langile berriak euskaldunak izatea erabakitzea...”.

Udaleko Euskara batzordeburuak garrantzia eman dio neurketak Udalak atal guztietan euska-

Zer dio? ▶ Uztarria Kultur Koordinakundeko Euskara arloa

Azpeitian euskararen normalizaziorako asko falta da

Kontseiluak herriz herri egin duen Udalerri Hizkuntza Politikaren neurketaren emaitzetako bat, neurketako 66 udaletatik Azpeitia rankinean lehen postuan dagoela izan da. Hori ona da azpeitiarrontzat; gutxienez, besteak baino hobeto gaudela esan nahi du.

Baina ez gaitzen engaina; Azpeitiari ere asko falta zaio oraindik euskararen normalizazio egoerara iristeko. Puntuaziorik altuena lortu du (6,82) baina, hala ere, ez da 7ra iritsi (hain zuzen, 7 puntu eskuratzeak definitzen du euskara lehenesteko eta sustatzeko Udalak egiten duen ahalegina, neurketa horren arabera). Baina, batez ere, Azpeitiaren egoera soziolinguistikotik oso urrun dago oraindik (herrian ia %90 garelako euskara dakigunak). Beraz, herrian oraindik asko dago egiteko, asko falta da.

Azpeitiko egoera. Uztarria Kultur Koordinakundearen ustez, udal neurketaren balio nagusia ez datza beste herriekiko konparazioan. Norbere herriko euskararen normalizaziorako bidean pausoak emateko tresna neurgarri bat izatea da bere funtzionalitate nagusia. Beste herriak egoera txarrean badaude, zer axola digu guri haiek baino hobeto egoteak, hala ere ondo ez bagoaude?

Neurketa egin den lehenengo aldia denez, berez ezin dugu Azpeitian jakin azkeneko urteetan egoera hobetu den ala ez. Dena den, inpresio orokorraren arabera, gaur orain dela urte batzuk baino egoera hobean gaude:

▶ Euskararen normalizaziorako planak daude herrian.

▶ Udal euskara teknikaririk ez zegoen 1998a arte. Udal Euskara Patronaturik ere ez.

▶ Euskalgintza orain urte batzuk baino egituratuago dago.

▶ Euskararen normalizazioan diru asko inbertitzen da.

Baina kontua ez da hori. Kontua da hemendik lau urtera berriro azterketa egiten denean, oraindik eta hobeto egon behar dugula. Eta handik lau urtera hobeto, eta beste lau urtera hobeto...

Horretarako, dagoeneko ez da nahikoa izango corpus juridiko egokia izatea, baliabide asko bideratzea euskararen normalizaziora, edo euskararen egoera orokorra ona izatea (Kontseiluaren iritziz, hizkuntza politika hiru osagaik zehazten dute. Lehenengoa, corpus juridikoa da, euskararen aldeko arau bilduma. Bigarrena, esleitu diren mota guztietako baliabideak: giza baliabideak, ekonomikoak eta administratiboak. Eta hirugarrena, euskararen egoera bera).

Lehenengoari dagokionez, corpus juridikoa betetzeko gaitasuna kontuan hartu beharko da. Izan ere, Azpeitian egundoko udal ordenantzak izan ditzakegu, baina ez badira betetzen, alferrik da corpus juridiko egokia izatea.

Baliabideei dagokionez, berriz, baliabide asko izan arren, horiek ez badira modu egokian erabiltzen, zaila izango da aurrera egitea. Merkataritza arloa lantzen teknikariak egon arren, horiek zerbitzu eskaintza egitera bakarrik mugatzen badira, agian aurrerapausoak emateko ez da nahikoa.

Eta euskararen egoerari dagokionez, lehen esan duguna: ona izan daiteke Tuterakoarekin konparatzen badugu baina, benetan ona izateko, urtetik urtera aurrerapausoak eman behar dira arlo guztietako erabileran.

Egoera soziolinguistikoaren eragina.

Azpeitian euskararen ezagutza tasa handia da: %90 ingurukoa. Kontseiluak berak ateratako ondorioetan dioen bezala, udalek lortzen duten puntuazioa harreman estuan dago ezagutza tasarekin. Hori handia bada, erabilera handiagoa izango da, kontzientzia handiagoa. Horrek badu logika. Baina ezin gara babestu Azpeitiko egoera 'pribilejiatuan'. Aurrera egiten ez bada, atzeraka egiteko arriskua izango dugu.

Konpromiso garaia da. Arloz arlo konpromisoak hartzen hasteko garaia da. Azpeitian euskara normalizatuko bada, jendea konpromisoak hartzea animatu behar dugu. Enpresek, dendek, ambulatorioak, epaitegiak, udal txeko kide eta langile orok, norbanakook... euskararen aldeko konpromisoak hartu behar ditugu. Euskaraz lan egiteak kalitate keinua suposatzen duela sinistu behar dugu.

Horretarako, euskararen normalizazioan lanean ari garenok erantzukizun handia dugu. Beraz, nola ez, erakunde publikoek ere bai. Eragile ezberdinak euskararen aldeko pausoak ematera bultzatu behar ditugu, bortxatu gabe betiere, baina etengabe animatuz eta zirikaturik. Ezin gara mugatu zerbitzu eskaintza hutsera. Azpeitiak, merezi duen puntuaziora iristeko, hori baino gehiago behar du.

raz aritzeko gaitasuna izatea azpimarratu izanari. "Bai langileek eta baita guk ere ahalegin bat egin dugu, eta hori dagoeneko horrela islatu da. Hala ere, hasi bakarrik egin gara, honek bide luzea dakar", dio Mendizabalak. Datoren urteotarako erronka "neurri hori mantendu" eta "7aren bideetik joatea" da, "hutsuneak betez".

Izan ere, hutsuneak egon badaude. Kontseiluak jakinarazita koaren arabera, Udalaren zenbait komunikaziotan, euskara eta gaztelania parean ageri dira; eta eus-

Hamar atal

Kontseiluak udalen barruan euskarak hamar ataletan duen garrantzia aztertu du.

- ▶ Erabaki orokorrak.
- ▶ Hizkuntza paisaia.
- ▶ Udal langileak.
- ▶ Udalaren komunikazioa.
- ▶ Beste zerbitzuak eta azpikontrata.
- ▶ Udalaren kultur ekintzak.
- ▶ 0-3 urte arteko hezkuntza.
- ▶ Euskalgintza.
- ▶ Merkataritza, lan mundua.
- ▶ Kirola eta aisia.

Kanpoko

neurketa batean herriak horrelako emaitzak lortzea pozgarria da"

ANA MENDIZABAL ▶

Udaleko Euskara batzordeburua



kaltegi publikoak ez direnei emandako diru laguntzek "hutsegiten" dute.

Kontseiluak denera 55 galderako galdetegia prestatu zuen euskarak hamar ataletan duen garrantzia neurtzeko. Euskalgintzako 150 bat laguntzailek erantzun zituzten galdetegiak, eta haien artean aritu ziren Uztarria Kultur Koordinakundeko Euskara arlokoak. ◀

informazio gehiago:

www.kontseilua.org/udalneurketa

Euskararen gorabeherak ▶




GORA. Atera dezagun euskara trastelekutik

Eraikineko txirrineko argibideak euskaraz izateak utzi ote du norbait atetik kanpo? Trastelekutik atera eta igo dezagun euskara gizarteko pisu guztietara.



BEHERA. Euskara ere alokagai?

Dirudienez, autoa eta euskara, biak batera aparkatu nahi izan ditu oharraren egileak. Izan ere, garaje bat alokatzeko ez dago zertan jo gaztelerara.



Euskararen eskubideen urraketak salatzen / bideratzeko ▶

Behatokia 902 19 43 32

Elebide 012

www.euskararentelefonoa.com

www.euskadi.net/elebide

Zer egin? ▶

“Guk antolatu edo parte hartzen dugun jarduera guztiak euskaraz izateko eskubidea dugunez, hau honela izan dadin ahalegina egin behar dugu”

Euskal Herrian Euskararen 'Bideak' eskuliburutik hartua; Uztarrarian dago edonoren eskura

Bota lasai ▶

'Azpeitiko' orain

Xabier Euzkitzek 2006ko azaroko Uztarrria aldizkarian esana: “Zenbat urtean ote dago iragarki hau Euskadi Irratian? 'Bastida Tximiniak. Azpeitiako Landetan'. Gaizki deklinatuta dago! 'Azpeitiko' da!”. Egun hauetan entzun dut Euskadi Irratian enpresa horren iragarria, eta orain 'Azpeitiko' esaten dute, ez 'Azpeitiako'. Ondo.

▶ Iñaki Odriozola

Berehalaxe

Olatz aldizkariari buruzko erreportaian ez dut jarri, toki faltagatik, baina webean jarri nahi dut Imanol Eliasek esandakoa. “Orduan [duela 50 urte] azpeitiarrek zailtasunak zituzten euskaraz leitzeko. Dena dela, kalean esaten zuten batzuek: 'Arantzazuko egutegian egunero euskaraz datorrena irakurri eta berehalaxe jarriko haiz’”.

▶ Enekoitz Esnaola

www.uztarrria.com/euskara
atalean emandako iritziak

Lasao

• egurrezko altzaria



100% gaztainondo trinkoa

www.lasao.com

Lasao Industrialdea
Tel. 943 151 182



ONDO PASATU KARNABALAK!



AZPEITIKO UDALA



ENPARANGO UDALBATZA - 2006 urtean taldekako hirugarren saria.


Otsailak 10 kaldereroak. Otsailak 11 CDaren aurkezpena. Otsailak 18 (jai karnabala) liana. haurren krosa. sokamuturra. artzain-inudeak. Idiarena. Otsailak 19 (astelehen karnabala) goiz erezia. zezen txikiak. ume jolasak. sokamuturra. ttuntturroak. mozorro ari banaketa. Otsailak 20 (astearte karnabala) goiz erezia. sokamuturra. umeentzat markeak. sokamuturra. zezenaren hileta plazan.



Karnabaletako abestiak
CDaren aurkezpena
otsailak 11

ondo pasatu festak!

Azpeitiko Tabernarien Elkartea



ETXEZURI - BOST - KORRALE - ORKATZ - INTZ - AMAIA - ZUHATZ - TXARRANTXA
OÑATZ - LOKOTX - FIDEO - NEGUDA - PIKUA - ELURRA - OKER